

**ANDRES MARIA URRUTIA BADIOLA  
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Bilbo, egoitza, 1998-02-27*



**ANDRES MARIA URRUTIA BADIOLA  
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Bilbo, egoitza, 1998-02-27*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Herri erakunde agintari jaun-andereak,  
Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateko  
agintari jaunak,  
Kultur elkarteetako ordezkariak,  
Euskaltzainkide anderea eta jaunak,  
Jaun-andereak, arratsalde on.

Gaur, gure egoitzako areto nagusian, irakurriko du bere sarrera mintzaldia joan den martxoan, Iraizozen bilduak ginelarik, hautatu dugun Euskaltzain berria Andres Urrutia Badiola jaunak.

Ez ditut hemen Andres Urrutia-ren merezimenduak aipatuko. Bertze batek, erantzuleak hain zuzen, nik baino hobeki egingen du. Bakarrik azpimarratu nahi nuke lehen aldikotz Euskaltzaindiaren historian hautatzen dela notario bat. Izan dira eta badira Euskaltzaindian lege gizonak, notario lehena da Andres Urrutia. Denetarik behar da Akademia batean: idazleez eta hizkuntzalariez gain, beharrezkoak dira ere euskara espezializatu baten jabe diren euskaldunak, zientzilariak nola notarioak.

Ongi ezagutzen dugu Andres Urrutia. Euskaltzain urgazle izendatua izan zen Ziburun 1991-ean. Geroztik sartu da batzordeetan, hala nola EEBS-en (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoan), Jagon Sailean, Sailaren idazkari izan delarik eta Lege-Ekonomi batzordean, ematen dituen aholkuak beti baliagarriak direlarik Euskaltzaindiarentzat.

Deustuko Unibertsitateko irakaslea da Andres Urrutia eta hain zuzen, Alfonso Irigoien Deustuko Unibertsitateko katedradun zenaren aljian jarriko da. Badute nahiko lekua Euskaltzaindian Unibertsitateek, Deustukoak, Euskal Herrikoak, Iparraldekoak. Orotara hamahiru euskaltzain Unibertsitateko erakasle edo erakasle ohiak dira, erdia baino gehiago beraz. Osoki aldatu da Euskaltzaindia. Euskaltzainburu naizenetik -bederatzi urte orain- agurtu ditut bere sarrera mintzaldia egitean, Andres Urrutia barne, zortzi euskaltzain, heren bat

orotara; segitzen du Euskaltzaindiak duela hogeita hamar urte hartu zuen erabakia: euskara batua, Euskal Herri osoak hain beharrezkoa daukan euskara idatzia-  
ren sortzea, lantzea eta bultzatzea. Arantzazuko biltzarretik hona zenbat  
euskaltzain berri, denak kar berarekin lanari lotuak! Egun batez joanen gara gu  
ere, nahiz ez dugun presarik batere, euskaltzain berriek ordezkaturiko gaituzte,  
Euskaltzaindia biziko da euskara diraueno eta badakigu iraunen duela euskal-  
dunek hala nahi baitute.

Andres Urrutia kidea, ohore zuri egun ospetsu honetan eta bihotz-bihotze-  
tik ongi etorri.

## LEGEAREN ZIRRIKITUETATIK BARRENA: AHOZKOTIK IDATZIZKORA

*Bilbo, egoitza, 1998-02-27*

*Andres Urrutia Badiola  
euskaltzainaren sarrera-hitzaldia*

### I. *Nori berea da Zuzenbidea*

(OIHENART, A.: *Atsotitzak eta erre-frauak, Proverbes ou Adages basques, Recueillis par le sieur d'Oihenart*, Paris, 1657).

### II. *Mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ez baliz... legueac norc eta nola eguinen cituen?*

(D'ETCHEBERRI, J.: "Lau-urdiri gomen-diozco carta edo guthuna", *Obras Vascon-gadas del Doctor Joannes d'Etcheberri*, Paris, 1907, 302. or.).

### III. *Lege gizonek behar duten hiztegi berezia.*

(Aita VILLASANTE: *Euskera*, XVIII, Bilbo, 1973, 203. or.).

### IV. *Euskaltzaindia, erakundea ote?*

## LEGEAREN ZIRRIKITUETATIK BARRENA: AHOZKOTIK IDATZIZKORA

Euskaltzainburu jauna,  
Herri agintariok,  
Euskaltzainok,  
Senideok,  
Lagunok,  
Jaun-andreok,  
arratsaldeon guztioi.

## I

**Nori berea da Zuzenbidea**

Ate joka natorkizue, euskaltzainok, Bizkaiko foru herrialdetik eta Zuzenbidearen arlotik. Euskara eta Zuzenbidea izan ditut betidanik lan-tresna eta gogo pizgarriak. Zilegi bekit, hortaz, aspaldiko euskal atsotitza gogoratzea, berorrek laburtzen baitu ondoen, nire irudirako, zuei azaldu nahi nizuekeena.

*Nori berea da Zuzenbidea.* Horra hor, besterik gabe, plazaratu gura dudan mezua, sarrera hitzaldi honen hezur-muina. Halakorik zuenganatzea erdietsiko banu, jakina, nire auzi hau ez litzateke benazko eta zinezko auzi bihurtuko.

Egin-eginean ere, bakoitzari dagokiona ematea betiko gogo, nahi eta gura izan ohi da giza kulturetan. Ez, ostera, eguneroko errealtate bizia. Asmo horren atzetik joan ohi dira justizia, Zuzenbidea, legea eta abarrak. Asmo horren bila ere, aurreko horien espresabideak, hitzak, esamoldeak; azken batean, hizkuntzak eta hizkerak.

Hortxe dituzue, lehendaurrez, nire egitekoaren bi ardatz nagusiak: Zuzenbidea eta hizkuntza. Edonondik begira dakiola ere, bi osagarri horiek norabide gabekoak izango lirateke, aldez aurretik beroriek kokatuko ez banitu gure egoe-ra eta inguruabarrik zehatzenetan, alegia, Euskal Herrian bizi ditugun zuzenbide/ak eta hizkuntza/ak tartean direla.

Aipua, nolana ere, ez da berria etxe honetan. Itzal eta sona handiko euskaltzainak aritu dira halakoetan (ETXEGARAI, ARRUE, NAZARIO OLEAGA, Aita VILLASANTE). Orobat gertatu da bestelako akademietan, horietan ere hizkuntza eta Zuzenbidea kezka eta eztabaida iturri izan baitira. XIX. mendean, Gaztelaniaren Akademiak espainiar legeginek aitortu zituen bere kideen artean, eskubide eta askatasun, konstituzio eta kode berrien hizkera bereganatu nahian (1). Horretara ondu zuen hizkuntzaren barruan Zuzenbideari edo, hobe esanda, hizkera juridikoari ematen zion garrantzia. Harrezkero ere izan ditugu halakoak eta berrikitan gertatu da antzekoa Zigor Kodearen legegintza bidean, Espainiako Parlamentuak Gaztelaniaren Akademiarekin gauzatu duen lanki-

(1) MARTIN, J. eta beste batzuk: *Los lenguajes especiales*, Comares, Granada, 1996, 6. or.:

“En España, La Real Academia Española se aperció de que había aparecido una nueva casta de hombres que hablaba una nueva lengua, la lengua de los derechos y de la libertad, y fue incorporando a nuestra lengua el nuevo sistema conceptual y léxico, gracias a la labor de eminentes juristas: Manuel de Lardizábal, Secretario Perpetuo de la Corporación; Gaspar Melchor de Jovellanos, miembro de número de la RAE, cuyo discurso de posesión versó *Sobre la necesidad del estudio de la lengua para comprender el espíritu de la legislación*; Francisco Martínez Marina, fundador de la Historia del Derecho; Antonio Ranz Romanillos; el granadino Javier de Burgos, creador de una Administración Pública objetivada y eficaz, a quien se debe la división provincial de 1833, sobre la que aún vivimos; Antonio Alcalá Galiano; Alejandro Oliván y Joaquín Francisco Pacheco cuya gran obra fue la elaboración del Código Penal de 1848.”.

detzaren bitartez, lege testurik pisuzkoenak gaztelania egokian argitarara daitezzen (2).

Gurean, hala ere, bestelako datuak izan ditugu dantzan. Bi dira azpimarratzeko modukoak:

a) Euskararen egoera bera (funtzioetan gutxiagotua eta giza aldra gutxiengo baten hizkuntza).

b) Euskal Herriko herrialde batzuetan egun bizi diren autogobernu fenomenoak, horiek ekarri baitizkiote euskarari premia berriak eta jorratu gabeak, batez ere, Herri Administrazio, komunikabide eta irakaskuntzan. Erabat ezezagun izan zaigu Euskal Herrian, oraintsu arte eta salbuespenak salbuespen, bere burua elebiduntzat (euskara barne) aitoritzen duen botere politiko baten presentzia.

---

(2) PRIETO DE PEDRO, J.: "La exigencia de un buen lenguaje jurídico y Estado de Derecho", in *Administrazioaren eta herritaren arteko komunikazioa hobetu nahian (Hizkera errazteari buruzko jardunaldietako ponentziak)*, IVAP-HAEE, Gasteiz, 1996, 137. or.:

"La Real Academia Española conoció, en su Sesión Plenaria del día 29 de junio, el escrito del Excmo. Sr. Presidente del Congreso de los Diputados, en el que, al solicitar un informe sobre el texto del Proyecto, reclamaba de manera especial la atención sobre los aspectos semánticos de términos no técnicos, y, en concreto, sobre el uso de los tiempos verbales frecuentes en el lenguaje jurídico.

Con el mayor respeto al ámbito de competencia de las Cortes y teniendo presente que el lenguaje legislativo posee la condición específica de «lenguaje especial», lo que comporta la preferencia de uso de determinadas marcas, fijó la Academia unas normas generales para la revisión, encomendándola a una Comisión especial.

Recibió ésta el texto definitivo del Congreso entrado ya el mes de julio y se ocupó desde entonces, con premura de tiempo, en la aplicación de los siguientes criterios:

Criterios de índole general:

1. Adecuación del texto a las Normas ortográficas vigentes.
2. Homogeneización del tenor del texto, en el que, como obra de diversas manos, se advertían con frecuencia fórmulas diversas aplicadas a un mismo caso en distintos.
3. Con fidelidad absoluta al principio básico del lenguaje especial de la norma jurídica citado en la precisión y la claridad, se proponen en algunos artículos simplificaciones o adopciones de términos que estima más apropiados.

Criterios particulares:

4. Se ha cuidado de manera especial que los términos no estrictamente jurídicos se adecúen al registro normativo del Diccionario de la Real Academia. Así, por ejemplo, el término «perpetrar» se reserva para el «delito o culpa grave».

5. En el uso del futuro hipotético, tan propio del lenguaje especial de la norma jurídica pero del que evidentemente se abusa multiplicándolo innecesariamente, se ha optado por mantenerlo siempre en los enunciados de tipo sentencioso —«el que presentare testigos falsos será castigado...»—, flexibilizando después el desarrollo de éstos con otros tiempos verbales.

Entiende la Real Academia que con ello se conjuga el respeto a la tradicionalidad de las fórmulas jurídicas con el sabor de actualidad de la norma. No deja de resultar significativo a tal propósito que, al tipificar nuevos delitos, como los vinculados al narcotráfico, a la ecología, etc., los redactores hayan prescindido casi siempre del empleo de ese futuro. A lo que significa esa tendencia de los legisladores pretende atender la Academia con la peculiar forma de armonización que propone."

Aurreko horiek, zalantzarik gabe, badituzte euren ondorioak, hizkuntza eta Zuzenbidearen gorabeheretan. Horietan sakondu nahi dut nire ahalegina eta, bide beretik ere, etorkizunari buruzko gogoetak eskaini.

Nire azaltze lanean lehendabizikoa *Zuzenbide* hitza bera, historian zehar norabide eta espresamolde bakarrekoa izan ez dena. Euskal autoreek maiz erabili izan dute *deretxo*, *eskubide*, *zuzena*, *zuzentza*, *zuzenbidea*... Azken urteotan, zail samarra izan bada ere, badirudi finkatuxeago dugula *Zuzenbide*arena, arau multzoari dagokiona azaltzeko; *eskubidea*, oster, *Zuzenbideak* norbanakoarentzat sortzen duen ahalmen sorta horri legokioke jabetasun osoz. Kritikak kritika eta aurkako iritziak gogoan ditudala, modu horretan jardungo dut nik neuk gaur eta hemen.

Gauzak horrela, bistan da nirea euskararen ikuspegia garatzea izango dela, hala historian zehar, nola egunotako bizimoduan; horretarako, euskarari *Zuzenbide*aren tresna izateko bide malkarrean agertu izan zaizkion oztopo eta estropezuak hizpide izango ditut. Azken urteotakoak zer ekarriko duen ere azaltzen ibili beharra daukat, Euskaltzaindiak lanean aurrera egin ahala, lan horren ekarriak berehala jasotzen baitira hizkuntzaren esparru guztietan eta, nola ez, hizkera berezien alorrean; bertan eta geroenean esango dudanez, euskara juridikoa ere badugu, euskararen enbor zaharreko adar berrizatu moduan.



*Zutik:* Andres Maria Urrutia, sarrera berbaldia egiten.

*Mahaian ezkerretik eskuinera:* Henrike Knörr, buruordea; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Patxi Goenaga, idazkaria, eta Jose Antonio Arana Martija, diruzaina.



Horrek, berez eta besterik gabe, hitzaldi baterako baino gehiago, arnas luze eta sakonagoko gogoetarako osagarriak ekarriko lizkigukeela ezin uka. Niri, ordea, bestelako puntutxoak ere eskura etorri eta nahitaez hartu behar, Euskaltzaindiak duen erakunde izaeraren nondik norakoak zuen begipean jartzeko.

Beste berba batzuetan esateko, Euskaltzaindiak bi horietan izan ditzakeen zereginak argira ekartzen ibiliko natzaizue, nire indar mugatuen ginoan. Horretarako ere, Euskaltzaindiari aitortzen diot indarra, bai Euskal Herri osoko herrialde historikoen artekoa, baita estatuen arteko mugaz haraindiko eta honaindiko izaera eta balioa ere.

Nonbaitetik hasi behar eta esan dezadan azken urteak euskararentzat iraultza eta joan-etorri handikoak izan direla. Arantzasutik honako itzulingeruan hogeita hamar urte luze betetzear daudenean, orduko lerro nagusiak aurrera doazkigu arian-arian. Han bertan erabaki zenak ahalbideratu ditu egungo kezak eta arazoak, orduko oinarria izan baita gaurko arranguren sustraia.

Damurik, ezin gauza bera esan hizkuntzak bizi duen bestelako ajeaz, alegia, belaunaldien arteko hizkuntza zaindu eta bermatzeko zereginaz, horretan eta, oro har, horren euskarri den ahozkotasunean, galera nabariak izan ditugulako urteok garrean.

Idatzizkoa zein ahozkoa, horixe izan dugu mendeotan barrena euskararen bizimodua baldintzatu duen bikoitza. Topikoari jaramon eginez gero, euskaldunok urri eta motz izan gara berbetan nahiz letra idatzietan. Topikoak topiko, horrek ere baditu bere baitan gezur galantak.

Hala eta guztiz ere, nire gaurko eginkizunari dagokionez, aurrekoak behela azalarazten digu errealitate sendo eta ezinbestekoa: euskal herrialde historikoen, bakoitzak bere esparruan, Foru zuzenbide beregain baten jabe izan arren, ez zuten euskararentzat finkatu gune ofizial baten sorrera. Foruetan, bertako erdarak (gaztelania, nafar erromantzea, gaskoina) ziren nagusi, zalantza nimenorik gabe.

Horra hor, hasteko, lehendabiziko abiapuntua. Euskara eta bertako Foru zuzenbidea, molde idatzian behinik behin, ez ziren bat. Lehena ez zen bigarrenaren eramaile izan. Hizkuntza eta Zuzenbidea, bion arteko lotura, estatu zein hizkuntza handien legelarietzat sustrai ohikoa eta hastapen eztabaidaezina, ez zen euskaraz sekula ere garatu (3).

(3) CORNU, G.: "Français juridique et science du droit: synthèse", in *Français juridique et science du droit*, Bruylant, Bruxelles, 1995, 16. or. CORNU frantziarrak harridura handiz azaltzen du Zuberoko egoera, aurreko horren froga gisa: "Il est impossible d'admettre qu'entre la langue et le droit le lien soit indéfectible. Leur liaison n'est pas indissociable. Entre eux la séparation est possible. Leur dissociation est un fait linguistique et juridique indiscutable. Il ne suffirait pas d'en chercher les marques au travers des accidents de l'histoire. Les rapports ont évoqué l'éviction de la *french law* et l'ordonnance de Villers-Cotterêts. J'y ajouterai la mésaventure des Basques. En 1520, la coutume du pays de Soule, province basque, a été rédigée comme la plupart des coutumes

Horretarako arrazoiak batera eta bestera erkatu izan dira. Taxu eta edu desberdineko kariak ekarri dituzte autoreek auzi horretara. Lau izen alderatuko ditut nik, eztabaida horren lerro eta lerrabideak argitzeko. Laurok dira nafarrak, Nafarroa izan baita historian zehar gertaera horien adibiderik garbiena eta esanguratsuen. Nafar erresumaren egitura politiko bete eta osoa izan daiteke, Euskal Herriaren baitan, horretarako lantegirik egokiena.

Apartera joan gabe, LACARRAK (4) argi ikusi zuen horren oinarria, inguruko erdara horiek zeregin ofizialetarako aurretiaz zituzten erabilera eta zorroztasunean. CIERBIDEK (5) ere ikuspegi berbera erakutsi du Euskal Herriko historian zehar gertatu den eleaniztasuna ikertzean.

Beste batzuk, GONZALEZ OLLE (6) adibidez, gehiago lerratu dira arazo hau gizarte ikuspegitik epaitzera, goi eta behe mailako hiritarren artean zeuden

---

à cette époque. Mais elle a été écrite en langage béarnais de ce temps et il a fallu attendre longtemps, d'initiatives privées, que cette coutume basque fût traduite en langue basque!"

(4) LACARRA, J.M.: *Vasconia medieval. Historia y filología*, Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Donostia, 1957, 30. or.: "Sería interesante precisar por qué el vasconce, que lo veremos hablado por todo un pueblo, en el que se constituye una entidad política independiente —el reino de Navarra—, no llegó a ser nunca lengua escrita [...]. Pero nada de esto se daba en el País Vasco: Ni hay una liturgia en vasconce, ni una corte o unos elementos directivos totalmente ajenos al latín. De aquí que no se sienta en la corte una necesidad absoluta de redactar los documentos en una lengua nueva con la adaptación correspondiente, cuando ya disponían del latín o del romance, inteligible para una buena parte de los súbditos del reino. Piénsese que cuando en el siglo X se estabiliza la monarquía navarra, ésta se extendía desde Jaca hasta la Rioja, y que precisamente la dinastía Jimena procede —según veremos mañana— de la zona más romanizada del País".

(5) CIERBIDE, R.: "Plurilingüismo histórico en Euskal Herria", *Fontes Linguae Vasconum*, 56 (1990), 156. or.:

"De hecho, el euskaldún, tan pronto como ampliaba el círculo de acción, estaba obligado a comunicarse en algún romance, al norte en gascón y al sur en romance de Navarra o castellano. De este modo, el vasconce, de salida, estaba muy mal situado para ganar la carrera, a pesar de su evidente arraigo popular.

Dos factores negativos más se añaden en contra del euskera:

1. La labor evangelizadora llevada a cabo por la Iglesia católica en Occidente se realizó en la lengua de cultura, no en la del pueblo, ya que sólo a partir de la Contrarreforma comienza a aflorar la lengua escrita.

2. El vasconce carecía de una lengua madre a la que referirse para pasar al estadio de la escritura y para enriquecerse con formas nuevas, como así sucedía con los romances respecto del latín, provocando con ello adaptaciones, siempre mucho más penosas de lo que pudo ocurrir con los romances."

(6) GONZALEZ OLLE, F.: *Vasconce y romance en la Historia lingüística de Navarra*, Cofradía gastronómica del pimiento seco, 5, Ediciones y Libros, Iruñea, 1972, 53. or.: "Todas las anteriores consideraciones han estado dirigidas a precisar el fenómeno histórico previamente expuesto: Un territorio, un reino, que desde el punto de vista geográfico se muestra homogéneo en el uso hablado del vasconce, no lo utiliza en la escritura de sus documentos. De ahí se desprende inmediatamente que dentro del área considerada vascohablante tuvo que darse una escisión, una diferenciación vertical, sociocultural, entre vasconce y romance. Y que es bajo tal aspecto —y no bajo el territorial— como debe estudiarse el conflicto entre ambas modalidades lingüísticas".

erabilera eta tirabira linguistikoen adierazpide moduan. JIMENO JURIOk (7) ere antzeko bidetik agertu ditu bere gogoetak berrikitan.

Ñabarduraz beteriko oharrak egin dakizkieke, dena den, halako baieztapenei. Goi mailako euskaldunen artean, esaterako, ezaguna da, besteak beste, JUAN DE ZUMARRAGA, BERTRAN ETXAUZKO, BELA, OIHENART eta abarren euskalduntasuna. SATRUSTEGI (8) euskaltzain osoak ere egoki irazi ditu XVI. mendeko espioitza gutunak, agintean zeudenek elkar trukean idatziak eta euskaraz adieraziak.

Euskara euskal gizartean bizi da, bertan dago sustraiturik. Horretara, XVI. mendeko lehen testuek (batik bat, atsoitzek) euren barnean daramatzate halako esamolde eta erranairuak, eduki juridikoz beteak. Hamaikatxo dira horren tankerakoak. Horietako batzuk aipatu nahi eta bi ditut gogoko, zuenera beren beregi ekartzeko, bi-biok ematen baitidate aukera ederra ALFONTSO IRIGOIEN euskaltzain oso zena gogoratu eta, zor zaion legez, haren laudorioa egiteko.

Hark utzitako lekua, jakina, ezin haren moduan bete. Hark irekitako lortzari eustea, ostera, egingarriago gertatu eta horri ekin diot, haren gomuta biziberritu nahian.

Haria eten gabe, ekar ditzadan bertora IRIGOIENen begiko haiek: *atzerrri*, *otserri* (9) eta *urde urdaondo e(ta) açia etondo* (10).

(7) JIMENO JURIO, J.M.: "Navarra. Historia del euskera", *Gure klasikoak*, Txalaparta, Tafalla, 1997, II. kapitulua.

(8) SATRUSTEGI, J.M.: "Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI", *Fontes Linguae Vasconum*, 64 (1993), 443-476. orr.

(9) IRIGOIEN, A.: "Oihenart-en atsoitz eta errefracuz nota tipia", *Euskera*, 34 (1989), 564. orr.:

"2. Ohienart, n.º 49: *Azerrri Otserri*, 'païs d'étranger, païs de loups'.

Latinez bazen errefracu politiko bat, zeinen arauera: *Hospes hostis*, 'atzeritarra etsai', baitugu, euskarazkoa bezain laburra eta aliterazio ta gutzizkoa. *Atzerri otserri* zaharra bada, latinezkoa zaharragoa.

Argi dagoela dirudi latinez *hospes* eta *hostis* hitzek sortzen duten aliterazioa gogoan izanik eraiki dela euskarazkoa ere; *atzerrri otserri*. Hitz konposatu bietan bigarren elementu den *herri*, 'païs', berdina baita *atz-* eta *ots-* formen txistukariekin jokatu da. Latinezko errefracuak eta euskarazkoak elkarren artean zer ikusirik ez dutela pentsatzea zaila dela derizat eta, jakina, denborari dagokionez arrazoizko da latinezkoa lehenagokoa dela uste izatea."

(10) IRIGOIEN, A.: "Urde Urdaondo e(ta) açia etondo", in *De Re Philologica linguae Uasconicae III*, Bilbo, 1990, 96. or. eta ondorengoak.

1452. urtean gaude eta legegin bizkaitarrak honetara dio: "Otrosi dixieron que por quanto quando alguno fema a alguno/fijo suyo o fija, o a otro heredero, alguna casa e caseria con todos/los bienes muebles e rayzes a ella pertençientes ponen duda/si daçion general de bienes muebles vale o non; e por quitar esta/dubda dixieron que hordenauan e estableçian que tal daçion general e fermamiento de la tal casa e caseria e bienes raizes, vala/e en quanto la daçion general de lo bienes muebles, non vala (signo) // (Fol. 59 v.º) (Al margen: Fuero Viejo de Vizcaya), saluo si dieren nombrando e declarando cada cosa sobre si; pero/por tal donaçion general no nombrando otros ganados o dine/ros se entiendan auer dado los bienes muebles que el Fuero An/tiguo de Vizcaya manda vr de Vrdaondo e açia Etondo, que son/la casta de los puerços que fueren en casa, e el pan que ouieren co/gido en casa, asi trigo como borona e çebada que aya cogido en/aquel

Azken horren inguruan badago zeresanik, berorrek baieztatzen baitu Euskal Herriko hainbat testu juridikotan ageriko dugun jokaera, hau da, erdaraz idatzitako testuaren barruan, erakunde edo egintza juridiko jakin batzuen izena euskaraz ematea. Horrek ere aldi hartako testigantza zuzeneko ematen digu, bertan egiaztatzen baitzaigu euskarak eta euskaldun letraduek moldatzen zuten jokia: erdaraz idatzi, euskarazkoa ere emanez, euskarazko horrek adierazten zuela euskaraz sortu, eta ohitura eta erabileraren bidez moldaturiko kontzeptua. Euskarazkoak balio zuen erakunde bera adierazteko; gure kasuan, etxe barruko dohaintzak zer hartu behar zuen egokien azaltzeko: *pero/por tal donaçion general no nombrando otros ganados o dine/ros se entiendan auer dado los bienes muebles que el Fuero An/tiguo de Vizcaya manda vr de Vrdaondo e açia Etondo, que son/la casta de los puerços que fueren en casa, e el pan que ouieren col/gido en casa...* Adibideak non-nahi ditugu (11). CARO BAROJAk (12) ere batzuk argitaratu egin ditu, Nafarroako Zuzenbidean eta, oro har, Euskal Zuzenbidean ere.

IRIGOIENen meritua da Bizkaiko Foru Zaharraren aipua, berak gauzatu zituen beste ikerketa askoren tankerakoa. Bestenaz ere, ezin baztertuzkoak dira ALFONTSO IRIGOIENen eragina eta itzala. Amaigabeko kontua izango litzateke horiek guztiak zerrendatzea. Zelanbait ere, eta Deustuko Unibertsitatek natorrenez, bidezko izan bekit harekiko dudan zerbait barruragoko plazaratzea.

Arean bere, gutariko askok, hirurogeita hamarreko hamarkadan Deustuko Unibertsitateko ikasle izan garenok, oroipen hurrekoan dugu haren irudia. Orduko sortu berria zen Deustuko Unibertsitateko *Departamento de Estudios Vizcaínos*. Bertan genituen MAÑARIKUA, CELAYA eta IRIGOIEN, historia, Zuzenbide eta euskararen inguruan ari eta ari, sail bakoitzari berea emanez. Hirukote ausarta benetan, behialako euskal kulturaren *hiru troglodita* (ARANZADI, BARANDIARAN, EGUREN) haien modukoa, gerogarrenean sortu zituzten emaitzei jaramon

---

anno e en esto non se entienda de el pan que truxiere/de fuera parte, ni los toçinos por muchos que tengan, saluo el/que estouiere ençentado, e vna cuba en que tenga la despensá, e/vna arca en que tenga el pan cozido e la caldera que se tru/xiere de cada dia e unos manteles e las layas e açadas e hachas/e cosas menudas de labrar qu ouiere en casa, e vna cama de/ropa de las comunales que ouiere en casa". (HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste batzuk: "Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya", in *Fuentes documentales medievales del País Vasco*, Sociedad de Estudios Vascongados, Donostia, 1986, 129. or.).

(11) OSES, C.: "Léxico vasco en documentación notarial guipuzcoana", *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 36 (1992), 819. or.: "Los escribanos utilizaban el léxico vasco para aquellas esferas lingüísticas más alejadas del vocabulario común de las piezas que redactan, cuando se hacen necesarias denominaciones de la vida diaria para realidades en que no participa el «romance»".

(12) CARO BAROJA, J.: "Prólogo", in BERISTAIN, A. eta beste batzuk: "Fuentes de Derecho Penal Vasco, siglos XI-XVI", *Antropología Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1980, 5. liburukia, 16. or.: "¡Qué no se habrá perdido de palabras de este tipo y otras en relación con conceptos que eran familiares a las gentes en el medioevo y aún después! El léxico se hace y se deshace, como se hacen y deshacen las leyes y se modifican las creencias y opiniones".

egin behar badiegu bederen. *Departamento* delako horretan, eta harrezkeroko Euskal Ikaskuntzen Institutuan eta Euskal Kultur Mintegian umotu ziren hainbaten euskal grina eta gogoia, urte gaitz eta zail haietan.



*Ezkerretik eskuinera:* Henrike Knörr, buruordea; A.M. Urrutia Badiola, euskaltzain oso berria; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Patxi Goenaga, idazkaria, eta Jose Antonio Arana Martija, diruzaina.

Ohikoa zen sasoi hartan eta ohikoa izan da hil arte IRIGOIENen presentzia, euskalgintzaren inguruko ekintzetan. Denborak aurrera egin ahala, garai hartako ikasleek egungo irakasleak ekarri dituzte. Irakasletzan hasi eta laster ohartu gara IRIGOIENek burutu zuen lan eskergaz, unibertsitate barruan zein kanpoan, arlo desberdin eta frankotan. Aipamenaren aipamenaz, antroponimia, toponimia, linguistika orokorra, literatura, margolaritza, bertsogintza eta bertolaritza, irakasletza eta abarrek ez lukete erraz laburbilduko haren mercez-menduek osaturiko hurrenkerara.

Horieta batzuk aipatzekotan, *De re philologica linguae uasconicae* ize-nko bost liburua, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)* eta *Kultura-hitzak euskaraz* aipatuko nituzke; oraintsu Deustuko Unibertsitateak hilondoko eta deduzko omenaldia eskaini eta bertan ezagutu genuen *Opera selecta* liburu aukeratua ere, ez nolana hikoia.

Horiek, berriz diot, aurretiaz gauza jakina genuen hura berrindartzera datoz. ALFONTSO IRIGOIENen betiko kezka —*euskara eta Euskal Herria*—

hortxe ditugu eskura, bikunak izan behar baitira, Irigoienek nahiko lukeen modu berean, gure ahalak eta leherrak.

Labur-zurrean esateko, eta IRIGOIENena behar den moduan gauzatzeko, beraren lumatik bertatik datorkigun testutxo hau irakurriko dizuet, hortxe barneratzen baitu berak (13), nire ustez, bere bizitzaren jitea:

*Beti ez dut jakin isiltzen, baina maiz behar nuen baino gauza gehiago isildu dut, funtsean betiko isilik egoteko asmorik sekula izan ez badut ere, eta bestek gehiegi hitz egin, eta askotan nork bere egiazko pentsamentuak estaltzeko hitz egiten da. Ez dut uste ene buruaren kaltean izan denik azken finean, agian ene burua biguna ez delako. Pozik nago Euskal Herriaren trajediaren atea zabaltzeko izan ez den ber. Gainerakoa ez [...] Zoriona ez zaio inori galerazi behar [...].*

## II

### Mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ez baliz... legueac norc eta nola eguinen cituen?

Esan legez, IRIGOIENen lan batean idoro nuen nik Bizkaiko Foruaren *ur-detasun* hura, inoizko batean haren hitz bizietatik sakonago ulertzeko aukera izan banuen ere.

Betor hori, etorri ere, eta horrekin lehenengo haria berreskuratuko dut, herriak bizi zuen euskarazko ahozketasun juridikoaren erakusle gisa.

Erakusletza hori, edonola ere, orobatsu dela ezin ahantzi. Urteak joan, urteak etorri eta XVI-XVII. mende bitarte horretan begirada jarriz gero, berehala aurkitzen ditugu esandakoaren islak.

Foruak, horren pausora. Idazleak, ETXEPARE, LEIZARRAGA, AXULAR ere, bide beretik. Unerik kontuzkoenean ere, euskara nolabaiteko ofizialtasun baten jabe. Aitzindaritza LEIZARRAGAREN *Testament Berria*. Horren gibelean, Albretarren erregetza protestantea, INTXAUSTI (14) eta KNÖRR-ek (15) azpimarratu dutenez.

Frantzian, *Villers-Cotterets* ordenantza tartean dela, frantsesa nagusi. Biarno eta Behe Nafarroako erresuma beregain horretan, biarnesa (16).

(13) IRIGOIEN, A.: *Sorterriaren alde (ene artearen iturriak eta bizitzako zenbait diztira)*, Kriselu, Donostia, 1976, 15. or.

(14) INTXAUSTI, J.: "Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformetako ilun-argitan", *Revista internacional de los estudios vascos*, 40 (1995), 119-160. orr.

(15) KNÖRR, E.: "Joannes Leizarraga", in *Los escritores, hitos de la literatura clásica euskérica*, Besaide bilduma, Fundación Sancho el Sabio, Gasteiz, 1996, 115-138. orr.

(16) CIERBIDE, R.: *Arnaud d 'Ohienart (1592-1667). Vida y obra*, Euskalerrriaren adiski-deen elkarte, Arabako Batzordea, Gasteiz, 1997, 8. or.: "Con posterioridad a la primera edición

Euskararen zeregina, ahoz zein idatziz, ugaria. Idatzizkoari dagokionez, adibide argia TXOMIN PEILLENek (17) *Eusker*a aldizkarian jasotako lege hiztegia; bertan ditugu, XVI. mendeko Zuberoako Foruan, JAKES BELA abokatua bilduriko hitzak.

Egin dezagun kontu. Euskal idazletza ere ahozkotasanaren eramaile dugula bistan da. Horretarako bi aldarte desberdin, igarri-igarrian baitago biotan euskarazko lege kontua. Lehena, XVIII-XIX. mende bitarteko hainbat idazlerena, beroriek Zuzenbide eta lege topikoak dakarzkigutela. Bigarrena, lege testu apurrak, euren urritasunean ere, bor-borrean zebilen mundu baten adierazle direnak.

Ekin diezaiegun bi horiei.

Iragan bitartean jauzi luzea egin eta LARRAMENDIri gatozkio. Bi osagai ditu aurrelari andoaindarraren ahaleginak: foruak eta euskara. Haren hitzak eta izkribuak ere bi lerrootatik datozkigu, liburugintzan zein hiztegi-gintzan. Bi-koitza ahalegina, batua emaitza.

Horren *Diccionario Trilingüe* delakotik hona berba adibidetsu batzuk (18), gure eremuan bete-betea sartzeko modukoak direnak:

---

de su obra, obtuvo para Saint-Palais la creación de la Senescalía o Tribunal de Primera Instancia (1639), con objeto de que se impartiera justicia en lengua vasca a los habitantes del tercer estado de Baja-Navarra, ya que los naturales, dice el decreto: «... no sabían ni comprendían otra lengua que la vasca y sufrían grandes inconvenientes al trasladarse a Pau, teniendo que correr con grandes gastos a causa de los traductores, para defender sus causas frente a los nobles y otros privilegiados»".

JAURGAINek ere Pierris de Casalivetry Mauleko notarioaren egunerokoa eskuan hartu eta berehalakoan oharu euskararen ahozko erabileraz: "La sentence était rédigée et prononcée en gascon, puis lue en basque par le greffier; mais les plaidoiries pouvaient se faire en cette dernière langue" (JAURGAIN, J. de: *Journal de Pierris de Casalivetry* —Arch. hist. de la Gascogne, 1909— Introduction, XIII. or.).

Aurrekoarekin batera, eta Bizkaian bertan (XV-XVI. mende bitartean), hona hemen argigarri izan daitezkeen lerro hauek:

"... sin embargo su interés trasciende del caso concreto por cuanto supone de institucionalización de la figura del intérprete euskaldun, propuesta además por la suprema audiencia y el Juez Mayor de Bizkaia con residencia en Valladolid, por lo que se merece un cuidadoso examen.

Según representaba la propia administración hasta aquel momento sólo había dispuesto de un receptor euskaldún, mientras que la gran afluencia de pleitos sobrevenidos desde Bizkaia y Gipuzkoa hacía necesario «otro receptor vascongado que resida en'sa dicha abdiencia».

Pues a raíz de tal desempeño exponían las consiguientes disfunciones: junto con el escribano cada proceso exigía de un intérprete, suponiendo el pago de dos en vez de un salario; los pleitos se dilataban en exceso; y la misma justicia resultaba mediatizada por la versión del traductor.

Como respuesta a los problemas planteados en esta súplica lo corte nombró receptor profesional a Juan de Murga puesto que era vascongado y escribano eficiente, y por ello se le integró en la plantilla de escribanos receptores del alto tribunal". (AGUIRRE GANDARIAS, S.: "La oficialidad del euskera en procesos postmedievales (con documentos inéditos)", *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 26 (1992), 259-279. orr.).

(17) PEILLEN, Tx.: "Zuberotar lege hiztegia hamaseigarren mende hastapenean", *Eusker*a, 27 (1982), 231-238. orr.

(18) LARRAMENDI, M. DE: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*, Txertoa, Donostia, berrargitaraldia, 1984, 2 liburuki.

*Acreeodor* (artzecoduna, artzecoduena; hartzekoduna); *alquilar* (alquilatu, alo-gueratu, alocatu); *cómplice* (Gaistaquidea); *contratar* (salerosi, tratuquidatu); *delinquir* (arautzi); *diputación, comission* (ecautea); *divorcio* (desezcontza); *enajenar* (bestereendu, berceerendu); *fe pública* (fede jaquiña); *juez* (ecadoya, jueza); *ley* (legue, leguea); *monarchia* (bacarondea); *nulidad* (iñolazcogoa); *pleito, litigio judicial* (aucia); *querella* (querella, querellea); *solar, donde se edifica* (urubea); *subrogación* (ordeztea, besteren ordean sartzea); *testamento* (atzenaya, testamentua, testameta); *usufructo* (gozamena, usufrutuá).

Beste horrenbeste esan daiteke haren liburugintzaren alderditik. *Fueroa* zen nagusi eta, ondorenez ere, ezin arbuigarriagoak *fueroaren* aurkako era-soak (19):

*Argatic Azpeticocan erabaqui zan, Hiri guciai eman cedilla contu, irundarrac billatu ta arqutu cituzten eguiteco egiazcoena. Baña orduan bertan junta etzidin batzarrereric, asmatu zuen aitzaquia ortic, luzagarri emendic Madridaño joateco eta Consejuaren gobernariagandic ateratzeco, iñon ere ez batzarrera biltzeco aguintea; aleguia biltzen bazan, arazo andiac, jaiteac ta auciabarzac izango ciradela; ceña zan eguia etzana: eta eguia etzanean, cer ote zan? Badaquite bada orrelaco aguinteac escatzea, ta eracartea dala goitican bera gure fueroa austeac; eta ezitrala eguin bearrac, baicic uts utsic obeditu bearrac. Badaquite, ez gobernariac ecen ez eta arequin batean bere bilguma osoac ere, ecin quenduco digula fueroac ematen digun escua, libertadea ta bidea. Cer eguiñen degu bada? Adisquideac goitic, lagunac betic, bearco ditugu noizbait; cincilica bezala gaude bata besteagandic. Orain laur-guitu dezagun, guero osatuco degu fueroa. Zori gaistoco buru, nascarric!*

Antzekotasunik eta parekotasunik badago halako gorabeheretan Bizkaiko lurraldean geroxeago biziko den giroarekin. XIX. mendea hasita, ULIBARRI arabarrak (20) idatzi dio Aita ZABALA euskaltzale bizkaitarrari, horrek Bizkaiko Forua euskara dezan:

*Orduan emeen porua imini biar dana da euzkera urrezco bichia edo izkeacaz [...] eiteen dabeen mesedea andigarria da chito euzkeel Errietaraco; ycengo da urrezco guiltzea Oneenpean yagoteco escutapenece yakiturizco gauza gustiac; lenengo Yaincoen Aguindec gordetaco; eta bigarrena gueure euzkera oneresia, bere ecandu, oitura, astura zuzengarri donzu gustiacaz.*

Abandoko errementariari erantzun mingotsa luzatzen dio fraide bilbotarrak (21):

*Orregaiti esateco nengoan, eta guichi gaiti lumeac escribidu eztau, orrec gogo eroac eta alperrac direala; baya nire artean eguin dot: oneri berba astuna erichico yeutsac, ta gay gozan ishilic: eta alan atzeratu na [...] baya*

(19) LARRAMENDI, M. DE: *Euskal Testuak*, Andoaingo udala, Andoain, 1990, 32. or. Tes-tu horiek Patxi Altunak eta Joseba Andoni Lakarrak prestatu dituzte.

(20) ULIBARRI Y GALINDEZ, J.P. de: *Gutunliburua*. Argitalpen facsimilea. Arabako Foru Aldundi Txit Gorenaren Kultur Kontseilua, Gasteiz, 1975, 44-45. orr.

(21) ULIBARRI Y GALINDEZ, J.P. de: *Gutunliburua*. Argitalpen facsimilea. Arabako Foru Aldundi Txit Gorenaren Kultur Kontseilua, Gasteiz, 1975, 47-48. orr.



*gaucea ondo beguiraturic, biotzac esan deust, ta ez bein; ez dot ori iritzat; ireac bashen indar ta lagungarri obeac bear dituc ortaraco. Izan bere nic eztaucait ori eguiteco bear dan aztiric, ez gura leukean era onic, ez diruric ta ez ecer: eta okerrago dana, ya eztaecat gogoric [...] nigatic forua erderaz gueldiituco da.*

Zernahi den ere, XIX. mendean baditugu arestian esandakoaren zantzuak. Zuzenekoak eta lehen eskukoak, gainera, Aita VILLASANTEk artez eta sakon ikertu dituen euskal sermoilari langile eta sutsuen liburugintzan.

Hala bada, maiz kausitzen ditugu JUAN ANTONIO MOGEL, FRAI BAR-TOLOME, FRAI PEDRO ASTARLOA eta abarren liburuetan halako aipamenak, juridikotasunik juridikoena burutik burura eskualdatzen digutenak. Orobat Gipuzkoako UBILLOS edo AGIRRE ASTEASUKOarenetan. Zeresanik ez, Nafarroako LIZARRAGA ELKANOKO eta Lapurdiko ETCHEBERRI SARAKOaren autuetan.

FRAI BARTOLOME bizkaitarrak badaki bereizten, euskaraz ere, Bizkai-ko tradizioaren araberako udal agintariak, forudunak —*pielak*— eta forugabeak —*alkateak*— (22).

*Urijeetaco Alcate Jaunac, ta Errijetaco Piel Jaunac nai balebee bere, quendu ezin leguijeez, Urijac, edo errijac nai ezdavela, sarritan icusidogun leguez. ¿Noc ditu bada guztiz quendutecuac? [...] Ciudadiac, Urijac, eta Errijac quendu leguijez eureen luurrecuac, gura balebee. Ezdau cristandadeco Legueguinec ez Uriric, ez Ciudaderic, ez Erriric castigueetan, bere luurreco dantza nastecuac quendu ditubalaco.*

Halaber, legea zer den zehaztu guran ibili eta Markina-Etxebarriko frai-dea (23) laster ohartzen da, baita guri ohartarazi ere, legeen arteko aldeaz:

*Gueuri aguinduteco, escubidia dauqueenac, modu ascotaracuac dirian leguez, mandamentubac, edo leguiac bere modu ascotaracuac dira. Eleisia da, pedeco gaucetan, ta oitura oneetan cristinaubac Cerura vidian imiñi, ta zucendu biar dituban, Aguintaribat. Ta orregaiti dagoz Eleisiaren mandamentubac, edo aguindubac. Erreguiac, eta Erreinuben Burubac dira, eureen aguinduban dagozanai, bata bestiaren arteco artu emonetan, cleituco, acien-daco, ta baque oneco gaucetan cer eguin biar daveen, ta cer eguin biar ez daveen, aguindu biar deutseenac. Ta orregaiti dagoz Erregueen, ta euren le-cuban dagozaneen aguinduban, eta leguiac.*

FRAI PEDRO ASTARLOA durangar zena ere, Zuzenbide kontuetan, irakasle oparoa. Honetara ematen dizkigu berak, lukurreriaz diharduela, egun era-

(22) FRAI BARTOLOME SANTA TERESA: *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*, Luis María Mujikaren edizio kritikoa, Euskaltzaindia (*Euskararen leku-koak*), Bilbo, 1986, 174 eta 175. orr.

(23) FRAI BARTOLOME SANTA TERESA: *Jaungoicoaren amar aguindubetaco lelengo bosteen icasiquizunac*, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortozezo Predicadoriac ateraac, Rada alargunaren Liburuguilla, Iruñea, 1816, 21 eta 22. orr.

bilera handirik izan ez, baina FRAI PEDRO ASTARLOAK (24) bizi-bizirik ezagutu zituen *centsuak*:

*... jaquin biar dozube modu bitacua dala censua; bata eche, solo, edo frutuemaile dan gauzaren baten ganian ifinten dana, eta deitza erriala. Censo onetan euneco iru baño gueijago ecin eruan leitequez, dinue Españaco leguia. Bestia da guizonaren irabaci, edo tratu, nai comercijuan ifinten dana. Oni deritzo personala.*

Ezin aipatzeke utzi JUAN ANTONIO MOGEL (25) eibartarra. Hor dugu *Peru Abarka*, maisu lana. Horren orrialdeetan, oinordetzaren inguruko foru bizkaitarraren mezu ezin beteagoa irakur daiteke:

*Eztaucat eche bat baño. Bizcaico porubac emoten deust escubidia aututeco zuben artian gura dodana neure oinordetozat. Guztiac bardin diriala, autuco dot semeen artian lenen jaijua. Zubez buru dongacuac bacinee, autuco neuque alaba nagusija. Ezta ondo gurasuac lotuta euguitia euren escubac.*

Gipuzkoarren baitan, gailen dugu, nire gogorako, AGIRRE ASTEASUKOA, UBILLOSen lana ere baztertu gabe.

UBILLOSengan (26) lege naturala zer den erraz antzematen da:

*Cer gauza da legue naturala deritzan jaiozco ta ecarriazco leguea? Da, cer dan gauz ona ta cer dan gauz gaiztoa eracusten digun gueren buruco arguia ta ezagumentua. [...] Baciequien alabaña, iñorc esan gabe, onetan eta beste gauz ascotan gaizqui eguiten zuela. Norcnai bere burutic duan argui ta ezagumentu oni deritza legue naturala edo jatorrizco leguea.*

AGIRRE ASTEASUKOA da, esan bezala, lehendabiziko eta nagusia nire gaurko alorrean. Horren liburuetan Zuzenbidea non-nahi dugu ageriko. Garai hartako legeak ezagutzen ditu. Erabili ere egiten ditu, sermoigintzan beharrezko duenean adibideren bat edo jartzeko. Jakin badakigu, ARANBURU (27) haren herrikideak hala arakatu eta idatzia, AGIRRE ASTEASUKOAK bere bibliotekan bazituela aldi hartako lege testuak nahiz lege autore garaikideen libururik aukerakoan.

(24) FRAI PEDRO ASTARLOA: *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua*, D. Pedro Apraiz-en moldateguia, Bilbo, 1818, 172. or.

(25) MOGEL, J.A.: *Peru Abarka*, Gerediaga elkarte, Durango, 1981, 107-108. orr.

(26) FRAY JUAN ANTONIO DE UBILLOS: *Christau doctriñ berri-ecarlea*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989, 16 eta 68. orr.

(27) ARANBURU, P.J.: *Juan Bautista Agirre Elola (1742-1823). Gizon eta apaiz eredu-garria*, Oñati, 1995. ARANBURUK AGIRRE ASTEASUKOaren anai legelariaren eragina azpimarratzen du, bibliotekaren liburuetan bi anaion liburuak direla: ARANBURU, P. J.: "Juan Bautista Agirre euskal idazlearen liburutegia 1742-1823", *Fontes Linguae Vasconum*, 73 (1996), 493-505. orr.

Haren idatzietan aurkitzen ditugu, sarri askotan ere, erdarazko legeen itzulpenak, hala nola, *Novísima Recopilación* Espainiako lege testuaren bilduman agerturiko VIII. liburua XI. tituluko V. legearen testua (28):

*Españaico legueac aguintzen du, ez dezala iñorc ere esan, ez cantatu itz de-sonestoric, ez gauaz, ez egunaz caleetan, placetan, eta bideetan, eun azote, eta urte betean deserrituric vicitzeco penaren azpian (leg. 5, titulo 10 (sic) lib. 8 Novæ Recop.) (29).*

Molde beretik badabilkigu asteasuara ezaugarri sendoak dituen ezkontzari buruz, Espainiako errege Karlos III.ak aldarrikaturiko testua (30) artez euskaratzen duela.

AGIRRE ASTEASUKOAK (31) honetara laburtu eta itzultzen du testu hori:

*Carlos irugarrenac milla zazpi eun, eta iruroguei ta amaseigarren urtean ipi-ñi zuan legue bat, non aguindu zuan, lenengo lecuan: oguei ta bost urte ez dituen seme, eta alabac escatu bear diezala gurasoai beren baimena ezcontzeco itzac emateco. Bigarrena, oguei, ta bost urte izan arren, escatu bear diezala gurasoai, consejua bederic. Irugarrena, gurasoen baimena, edo consejua escatu gabe ezcontzen badira, ez deceela izan beren echeco ondasu-netan escu, ta escabideric.*

(28) *Novísima Recopilación*, VIII. liburua, XI. titulua, V. legea: "Mandamos, que de aqui adelante ninguna perfona fea ofado à dezir, ni cantar de noche ni de dia por las calles, ni placas, ni caminos, ningunas palabras fuzias, ni deshonestas, q comunmente llaman pullas, ni otros cantares que fean fuzios, ni deshonestos, fo pena de cien açotes, y deferrado vn año de la Ciudad, villa o lugar donde fuere condenado".

(29) AGIRRE ASTEASUKO, J.B.: *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldiac*, Hordago, Lur, Donostia, 1978, 2. liburukia, 145. or.

(30) 1776ko maiatzaren 23ko Pragmatika, hil bereko 27an argitaratua: "... los matrimonios de los hijos e hijas de familia menores de veinte y cinco años, mando, que estos deban, para celebrar el contrato de esponsales, pedir y obtener el consejo y consentimiento de su padre, y en su defecto de la madre, y a falta de ambos, de los abuelos por ambas líneas respectivamente, y no teniéndolos, de los dos parientes más cercanos que se hallen en la mayor edad, y no sean interesados o aspirantes al tal matrimonio, y no habiéndolos capaces de darle, de los tutores o curadores. [...] Si llegase a celebrarse el matrimonio sin el referido consentimiento o consejo, por este mero hecho, así los que lo contraxeren, como los hijos y descendientes que provinieren del tal matrimonio, quedarán inhábiles, y privados de todos los efectos civiles, como son el derecho á pedir dote ó legítimas, y de suceder como herederos forzosos y necesarios en los bienes libres, que pudieran corresponderles por herencia de sus padres o abuelos, á cuyo respecto y obediencia faltaron contra lo dispuesto en esta pragmática. [...] Los mayores de veinte y cinco años cumplen con pedir el consejo paterno para colocarse en estado de matrimonio, que en aquella edad ya no admite dilación, como está prevenido en otras leyes; pero si contravinieren, dexando de pedir este consejo paterno, incurrirán en las mismas penas que quedan establecidas, así en quanto á los bienes libres como en los vinculados".

(31) AGIRRE ASTEASUKO, J.B.: *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramen-tuen gañean eracusaldiac*, Hordago, Lur, Donostia, 1978, 1. liburukia, 603. or.

Ez du ASTEASUKOAK (32) ahazten foru arazoa eta, garaiari dagokiona aintzat hartuta, lege horrek izan zituen gorabeherak ere ekartzen ditu, Nafarroako Kontseiluak ez baitzuen onartu erregeren agindu hori.

Lot nakion, alabaina, LIZARRAGA ELKANOKOARI (33). Horren *De Matrimonio: quid, a quo...* tratatuak, ezkontza bera zer den azaltzean, sakramentu izaera eta kontratu izaera bereizten ditu:

*Errealidádean matrimonio dá guizón ta emastequibáten uniónea vici gucíco engendraceagátic húmeac, ematendiréla bátac berceái derécho ta potestáde bere gorputzain, obligacendiréla vicicerá compañia ónean ta separaestaiz- quen guisan, baicic elcarréqui beti viciquide becála, elcárr maítáuts, elcárr lagündus, ta conformátus vicicecó báquean, ta acicecó húmeac Ceruráco. [...] Christioen matrimoniogóntan direbi gauza, contrátua ta sacraméntua: Matrimoniac, contrátu becála dacárr obligácio guizonari emásteas, ta emasteari guizonás, baña eztacárra graciatic; sacramentu becála dacárra grácia Cristoren meritoes culpicecó aiságo obligácioac...*

Aurrekoari den guttiena ere kendu gabe, ez nioke hurrenkera labur horri amaierarik eman nahi, ETCHEBERRI (34) Sarako doktorearen *Lau-urdirí gomendiozco carta edo guthuna* gogora ekarri gabe. Hortxe dituzue, neronek goiburutzat hartuta, Zuzenbidea eta legea uztartzen dituzten euskal hitz egoki eta euskarazkoak:

*Ecen mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ez baliz gure artean, nola bicico guinen mundu honetan? Munduac nola irauenen çuen? bat bederac nola emanen çuen aditçera bere arroçoina eta çuçena? Bere ondicoa nola bertçeri erranen, eta contatuco cioen? Mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ezbaliz, norc cer irakhatisco çuen? Legueac norc eta nola eguinen cituen? Mundua norc gobernatuco çuen? Ceini bere çucena nola emanen, eta beguiratuco citçayoen? Bat-bedera bere ondicoan, eta atsecabean norc consolatuco çuen, mintçoric içan ez baliz? [...] Mundu hau bada bere oinean badago, matenatcen bada, legueac eguiten badira, nori bere çucena beguiratcen baçayo, jaquintasuna, eta escolac irakhasen, eta ikhasen badira, Hirietan, eta Herrietan Gendeac elkharrequin bici badira, eta gucien gainetic baldin salbatcen bagara; ontasun, eta fajore hauc guziac heldu çaiçquigu mintçotic, eta itz eguitetic.*

(32) AGIRRE ASTEASUKO, J.B.: *Jesu-cristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusaldic*, Hordago, Lur, Donostia, 1978, 1. liburukia, 603. or.: "Carlos laugarrena etzan onembesterequin contentatu, eta agindu zuan, ez daukiela ezkontzeco itzen auziai lecuric eman, letraz ezarriac, eta Escribauaren, eta testiguen aurrean emanac ezpadira. Baña Obispo Jaunac ez due artu bigarren legue au, eta etzan erraz artzea, ala nai izan arren; Ceren Aita Santu Benedicto Amalauarrenac dionez, ez duen onembeste escu. Nafarroaco Consejuan, eta Provincia onetan ere, etzitzayon lecuric eman ezkontzeco itzen modu berri oni. Atera ezazu emendic, gaztea, ezkontzeco itzac Jaincoaren aurrean balio dezaqueala, letraz ezarria, eta Escribau, ta testiguen aurrean emana ez izan arren".

(33) APECECHEA, J.: "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782)", *Fontes Linguae Vasconum*, 29 (1978), 339-360. orr.

(34) D'ETCHEBERRI, J.: "Lau-urdirí gomendiozco carta edo guthuna", *Obras Vascongadas del Doctor Joannes d'Etcheberri*, Paul Geuthner, Paris, 1907, 302 eta 303. orr. Sarrera eta oharrak JULIO DE URQUIJO E IBARRAK egin ditu.

Esaneko berbetan egon eta bigarren tankerako zehaztapenak ere agindu dizkizuet arestian eta, bete ere, hala beteko ditut, zuen gogoan paratu nahi baitut lege edo, hobe esanda, arau eta manugintzan euskara erabili zuten aginduen laburpena.

Guztiak jite berberekoak ez badira ere, bai, ordea, sailkatzeko modukoak. Hona hemen, labor bildurik, halakoen aztarna nagusiak:

1. Hegoaldean eta, batik bat, Gipuzkoan, bistan da ahozko tradizio juri-dikoak bere segidakoak izan zituela, bi aldar-teotan gutxienez. Lehena, XVIII. mendetik aurrera ageriko diren udal ordenantzak (Tolosa, Usurbil) (35), herri euskaldun elebakarrari hainbat agindu helarazteko asmoz sortu zirenak. Bide beretik ere, SAN MARTIN euskaltzain osoak iragarri zuenez, 1812. urteko Konstituzio espainiarra euskaraz zabaltzeko saioak (36). Horien aldamenean, zalantzarik ez, XIX. mendean Donostiako *Lore-jokoek* erakutsitako joera, euskara nolabait *ofiziala* moldatuko duena. Ordenantzen euskara lexiko mailegatuena eta joskera erdaratik itzuliarena bada ere, Donostiako *Lore-jokoena*, al-diz, hizperri eta hitzurten estuagokoa dugu, LARRAMENDIren eragina ere nabari dariola, nabarmen izan arte (37). Bigarren horrek, motz eta labor barik, luzetxo iraun zuen XX. mende hasierako giro berriak berori ezabatu arte.

---

(35) Tolosako ordenantzen inguruan, ikus URRUTIA, A. eta LOBERA, A. (arg): *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 1997, 427-430. orr.

Usurbilgo ordenantzen inguruan, ikus ZABALETA J.: *Euskal itzulpenaren antologia*, Itzulpen eskola, Donostia, 1984, 202-210 orr.

(36) SAN MARTIN, J.: "Cadizko Konstituzioa euskaraz 1820", *Euskera*, 32 (1987), 393-397. orr.

(37) "ait-zati (patrimonio), *alderdi* (partido político), *aldimaitz* (comisión), *aldimaitz zuzen-dari* (comisión directiva), *aldiri* (provincia), *anaikidago* (cofradía), *araude* (reglamento), *arazgetu* (jubilado), *argidotar* (ilustre), *arraude* (derecho, privilegio), *arrotzentzako ehandi* (consulado), *artuagiri* (pagaré), *atzen-opamen* (testamento), *aurkeztari* (comisionado), *aurrande* (derecho, privilegio), *bainande* (1. condición; 2. pacto), *bakidargo* (comunidad), *bakide* (1. conjunto; 2. unión), *balinde* (1. capitulación; 2. convenio, pacto), *ballera* (cofradía), *begoitetu* (invertir), *bere-puxka* (patrimonio), *bialkin* (embajador), *billaldi* (sesión, junta), *bilguma* (1. ayuntamiento; 2. consistorio, junta), *burdin-bide* (ferrocarril), *dianagusi* (presidente), *dianagusi ordeko* (vicepresidente), *dianagusitu* (presidir), *dianagusitza* (presidencia), *dieronde* (república), *dierr* (nación), *dierritar* (compatriota), *egintza* (1. acta; 2. acto), *ekautu* (diputación), *ekautu* (diputado), *ekautuen bilguma* (Diputación como cuerpo), *ekindari* (procurador), *enparatu* (embargar), *epalle* (jurado), *epalletz* (jurado), *epakitzalle* (jurado), *erabakida* (resolución), *erabakitza* (resolución, acuerdo), *erondari* (gobernador), *eronde* (gobierno), *erregezko* (real), *erri eche* (ayuntamiento, casa consistorial), *eskriron*(t)zi (escribanía), *eskudantegi* (licencia), *gallaldi* (privilegio), *gainde* (alteza), *geidiati* (excelentísimo), *gizarande(ak)* (derecho de gentes), *gizaraudeak* (derecho de gentes), *goarpelari* (secretario), *goitikida* (Constitución), *guziz goitagarri* (excelentísimo), *ikasola* (universidad), *interes-kucha* (caja de ahorros), *irakasde* (instrucción), *iraungituri* (tradicción), *irigoki* (popular), *iritarau* (política), *ichaskinde* (marina), *itsaslapur* (pirata), *jabegabetu* (declarar desierto), *jauntasun* (señorio), *jauntza* (señorio), *lagundi* (1. compañía, sociedad; 2. compañía), *lagunkida* (1. compañía, sociedad; 2. compañía), *laguntza* (compañía, sociedad), *lanari* (trabajador), *lenenkari* (1. presidente; 2. principal), *leñargi* (1. nobleza; 2. noble), *lerden* (derecho, privilegio), *lugorki* (capital), *lurbira* (territorio, comarca, región), *On* (Don), *Ona* (Doña), *on-bereiskuntz* (privilegio), *ondeki-datu* (fundar), *ontzidi* (flota, armada naval), *otsandetu* (promulgar, publicar), *otsanditu* (solemni-

2. Hegoaldean ere, eta Bizkaiko Jaurerriari dagokionez, azpimarratzekoa da XIX. mendean, lehen esan dugun jokoera beretik abiatuta, Bizkaiko Batzar Nagusietako euskal testuen multzoa. Euskal Herriko Hegoaldean inoiz izan den euskarazko testu-multzo juridikorik bateratuena dugu horixe. Irizpideak irizpide, URIARTE euskaltzale eta BONAPARTE printzearen solaskideak buru-belarri jardun zuen urte luzeetako zeregin horretan. Nolanahi den ere, haren pentzutan eginiko testuak ez dira zerrenda horren testu guztiak, bestelakoak ere baitziren tartean (38). Azpimarratzekoa, denon bistarako, bizkaieraren abialdian gertatzen den hori. Izan ere, euskalki bera, doituia eta literatur mailara igoa izan, eta administrazio zereginetan ere ageriko, foru sistema juridikoaren hon-dakinak bertan behera datozen garai berean.

URIARTEK berak (39) BONAPARTE printzeari idatziz eman zion bere iritzia lan horri buruz, eginkizun neketsua eta ardurua handikoa zela azalduz:

*Hace más de 24 años que a la Diputación de Vizcaya he hecho todos sus trabajos bascongados y demás. Siempre estoy resuelto a no hacerles nada; pero siempre encuentran personas a cuyas exigencias no puedo negarme. Dicen que ahora me pagarán por todo; pero yo no lo creo. Hay que traducir bienalmente en las Juntas varios discursos muy difíciles.*

zar), *ots(-)jaundi* (solemnidad), *otsaunditu* (solemnizar), *purube* (solariego), *chit geidiati* (excelentísimo), *chit goiti* (excelentísimo), *chit goititu* (excelentísimo), *chit goitu* (excelentísimo), *uriztaile* (gobernador), *zuzejaun* (director), *zuzejaunte* (patronazgo), *zuzendari* (1. directivo; 2. director), *zuzende* (dirección, señas)". (PAGOLA, I.: "Neologismos en los Juegos Florales", *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 18 (1984), 55-141. orr.).

(38) RUIZ DE LARRINAGA, J.: "Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 2 (1957), 233. orr.

"Ya desde el año 1843, por lo menos, venía prestando al Señorío este servicio de Traductor de sus documentos oficiales al vasconce sin remuneración alguna, según lo consigna expresamente esta párrafo de su Carta 199 del 2 de agosto de 1867: «Hace más de 24 años que a la Diputación de Vizcaya he hecho todos sus trabajos bascongados y demás, y no me ha agradecido absolutamente con nada... Hay que traducir bienalmente en las Juntas varios discursos muy difíciles»...

Hemos consultado los Registros impresos de las Juntas Generales de Guernica desde los primeros tiempos de Isabel II, y lo que sobre el indicado asunto hemos hallado es lo siguiente: En los años 1839 y 1841 (pp. 10 y 14 respectivamente), sólo se dice que se hizo **una explicación** del discurso del señor Corregidor en **idioma bascongado**. En las de 1844 nada de eso se consigna. En cambio desde 1846 en adelante hasta 1868 inclusive, fuera de las de los años 1850, 52 y 54 están dichos discursos de los Corregidores en castellano y vasconce, siendo éste el característico de nuestro P. Uriarte en las eufonías, v. gr. **gustija**, **dontzuba**, **ditubeen**, etc., etc.

En las de 1864 y 1866 además del discurso del Corregidor están traducidos al vasconce los de don Antonio López de Calle, don Miguel de Loreda sobre los fueros; del mismo Loreda, del General don Francisco de Lersundi, de don José Niceto de Urquizu y otro más del dicho señor Loreda, sobre la batalla naval de Callao, en los registros de 1864, pp. 151-166, y de 1866 pp. 142-165 respectivamente. Todas esas versiones parecen ser de nuestro P. Uriarte, no así las de las Juntas de los años 1868 y 1870, que son las últimas en que hay traducciones vascas, en la primera de las cuales ya nuestro sujeto andaba muy mal de salud, y en la segunda era difunto."

(39) RUIZ DE LARRINAGA, J.: "Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 3 (1958), 428 eta 429. orr.

Testu horiek, bestaldetik ere, tradizio baten oihartzun dira. Hiztegiz erdararen menpeko izan arren, joskeraz ere ez edozelangoak. Bakan batzuk, ordea, hizperriak (40).

3. Nafarroarenak aitzakia ederra ematen dit, beste behin ere, arestian aurreratu dugun puntu batean nire gogoetak indartzeko. Ordenantzen mundua ezaguna dugu Nafarroan eta hortxe daude, lekukotza bizia emanez, besteak beste, Bera (41) edo Goizuetakoak (42). Orobat, Nafarroan bertan Justizi Administrazioan zeuden errezeptore euskaldunen eta erdaldunen arteko istiluak (43). Nafarroan ditugu testugintza juridikoaren inguruko aipamenik ugariak, aspalditik adituak jakin-mina sortu dutenak. Ikerkuntza horretan aritu dira, berbarako, MENÉNDEZ PIDAL (44), ETXEGARAI (45) eta CARO BAROJA (46). Horren aldera euskal hitzak: *azaguerrico*, *echaiaun*, *echandra*, *chandra*, *opilarinzada*, *gayola*...

Ahoz zein idatziz, eta lorratz beretik, badugu antzekorik beste herrialde batzuetan ere: *abeurrea* eta *bidigasa* Bizkaiko Foru Berrian (1526), *auzolan*, *andabideak*, *lorrak*, *alkar-poderoso*, *bide-zorrak*, *oilo lur*, *gizelana* bizkaitarren

---

(40) Hauxe da, besteak beste, orduko dekretu baten bertsioa:

“Junta generalac entzunic gutoric an dijenagaz berbaldi au, icusiric berariz icentautaco Comisinoiac bere informiau proponidu cituban neurrijac, eta egonic euracaz guztiz conforme, aguindu eta decretau eban: *Leengo: Declarau eta artuten zala Vizcaico semetzat D. Casto Mendez Nuñez, Ontzidijaco Almirante jauna, emoten jacola jarlecu onragarrija Aita Provincijaco jaunen bancubetan Junta generaletan. Bigarren: bardin declarau eta artutenzala Vizcaico senetzat D. Miguel Lobo, Ontzidijaco General nagusi jauna, emonagaz jarlecu onragarrija Apoderaduben artian Guernicaco Juntetan. Irugarren: Emon daquijuezala berarizco esquerrac otsaudico voto baten bitartez ontzidija ataco beste Comandante eta Oficialesjaun guztijai. Laugarren: Esan dau ontzidijac equi eban guda edo guerran, parte artu eben euscaldun marinel guztijai, entregauco jaquela bacochari bere diploma edo despachuba, ceifetan aguertuta egongo dirian Señorijo edo lur linargui onen mirariz eta esquer onez beterico sentimentubac, eta mariñel lelengueteaco don Alejandro Llano, Portugaleteco semiari, cein eriduba izan zan Almansaco fragata edo ontzijan, entregauco jacola esan dan diploma edo despachuba, eta onezaz ganetic, bere servicijaco demporija amaituten dabeneco gueratuco dala encargauta Diputacinoe generala empletaco marinel au bere claseco bati jaocan leguez.*

Eguin zan decreto au Guernicaco arbolieren azpyan esan dan garagarilleco laugarren egunian milla zortzireun eta irurogueta seigarren urtian”. [URRUTIA, A. eta LOBERA, A. (arg): *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 1997, 82. or.].

(41) IDOATE, C. eta VILLANUEVA, J.J.: “Unas ordenanzas de Vera en vascuence”, *Fontes Linguae Vasconum*, 37 (1981), 275-281. orr.

(42) SATRUSTEGI, J.M.: “Goizuetako udal ordenantzak”, *Fontes Linguae Vasconum*, 72 (1996), 297-313. orr.

(43) ZENBAIT AUTORE: *Geografía histórica de la lengua vasca (siglos XVI al XIX)*, Auñamendi bilduma, Icharopena, Zarautz, 1. liburukia, 1960, 79. or.

(44) MENÉNDEZ PIDAL, R.: “Introducción al estudio de la lingüística vasca”, in *En torno a la lengua vasca*, Austral bilduma, Espasa-Calpe, Buenos Aires, 1962.

(45) ETXEGARAI, B.: “Algunas voces vascas usadas en el Fuero General de Navarra”, *Euskera*, VIII. urtea, I-II (1927), 43-65. orr.

(46) CARO BAROJA, J.: “Observaciones sobre el vascuence y Fuero General de Navarra”, *Fontes Linguae Vasconum*, 1 (1969), 61-95. orr.

ahotan; *ondazillegi* eta *gorozeta* gipuzkoarren mintzoan; eta *sainhoa*, *abel ha-xacarri* eta *gasaila* Zuberoako ohituran.

Egun ere, horren arrastoek bizirik diraute Nafarroako eta Bizkaiko foru idatzietan. Horretara, Nafarroan arauturik daude *belena* (376. legea), *etxeoark-teak* (404. legea) eta *langa* edo *keleta* (402. legea), Baztan aldeko *zocorra* eta *carloa* ere (Ordenantzen XII. kapitulua) bazterrean utzi gabe. Bizkaian, aldiz, *hil-buruko* testamentua (31. art.) eta *alkar-poderoso*a (33. art.) bistakoak dira, gaur egun ere, indarrean dagoen foru idazkeran.

4. Iparraldean, laugarrenez, aspaldikoa da aurrekoaren moduko euskal tradizioa. Aspaldikoa eta, hala ere, beste herrialdeetan legez, hagitx mugatua. Aldera ditzadan hona, esan dudan horren erakuskaritzat eta eurok agortzeke, hiruzpalau adibide. Lehena, Frantziako Iraultzaren testugintza euskaratuarena, aski ezaguna (47). Bigarrena, Lapurdiko *État* edo Batzar Nagusiek euskaraz erregeri zuzendu zioten *Cahiers de Doléance* deiturikoa, VINSONEK argitarata emana (48). Hirugarrena, MAITE LAFOURCADEk (49) bildu eta adierazia, notario protokoloetan bilatu testu sorta esanguratsua. Bestelakoak ere badira, eta berariaz gogoratuko nuke nik, frantses idazte ofizialeetik eguneroko euskal idazte horretara doan zubian, XX. mendearen atari-atarian, *Baigorrico Laborari-Confrariaco erreglamendua* (50) (1892. urteko martxoaren 19koa). Labur dezadan, bada, garai bateko esamolde eroso eta malgua, egun bihurri gertatzen zaizkigun testu frankoren aurrean eskarmentu ederra erakuts diezagukeena.

3<sup>en</sup> Art.—*Confraria* egina da laborantzaren onetan ditazken gauzen bilhatze-co, eta gauza hec ahalaz laborarien escuetan emaiteco eta begiratzeco. Ero-sico ditu batean, merkeago izaiteagatic, laborantzaco behar edo on diren gu-ziac, nola tresnac, ongailuac, haziac, bihiac eta bertze. Egin ahala eginen du confrarian direneri beren mozkinen ongi salarazteco. Egin ahala eginen du ere laborarieri iracusteco zer ongailu mota galdetzen duten heien lurrec, to-kiec, haziec edo landarec.

Azken horretan, beste behin ere, hizperri gutxi eta joskera jatorra.

Zirriborroan bada ere, lau lerro nagusi horietan bistan da, Euskal Herriko Ipar zein Hegoaldean, bi-biotan, liberalismoak eta konstituzioek ekarri zutena antzekoa izan zela, hau da, estatu osorako erakunde bakarrak izatea, forua desagertzea eta, oro har, uniformizazio ahaleginetarako bidea jartzea.

(47) RICA ESNAOLA, M.: "Traduction en basque de termes politiques sous la révolution", *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, IX (1975), 3-172. orr.

(48) VINSON, J.: "Pièces historiques de la période révolutionnaire", Baiona, 1874, 3 liburu-ruki.

(49) LAFOURCADE, M.: *Mariages en Labourd sous l'Ancien Régime*, EHuko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 1989.

(50) *Baigorrico Laborari-Confrariaco erreglamendua* (frantsesez syndicat agricole deitzen denaren erreglamendua), 1. or.



Ideologia liberal horrek pentsaera berria zekarren. Ideologia berri horren aldamenean, hizkera berria ere: *liberté, légalité, fraternité* denon gogoan. Berbat gertatzen da gaztelaniaz ere, *patria, libertad, derecho, constitución* eta abarrek eratortzen baitituzte egoera berrirako bereizgarririk jatorrenak. Gogoratu, osterantzean, Gaztelaniaren Akademiari buruz esandakoa.

Horren islak XX. mendearen hasieran ditugu. Arean bere, egitura berri horien ondorioz, XIX. mende azkenak eta XX. mende hasierak euskararentzat dakarte nazio hizkuntzaren maila eskatu eta euskaldun guztiek osaturiko erakunde politiko erkide baten hizkuntza izateko aldarrikatze gogotsua. Horrek berez zekarren euskararen erabilera, eginkizun eta zeregin guztietan aritu beharra. Aurki, mundu berri hori euskaraz antolatzekeo abiapuntua.

Aurretiazko zantzu larramenditarrak aipatu ditugu. XIX. mende hondarean desagertua eta haizeak eraman legez ezereztua, larramenditar giroak geroko bidea zabaldu zuen. Giro hori izan zen, zalantzarik gabe, ARANAK eta AZKUEk hiztegitzintza kontuetan ekarri zuten aldikada berriaren atari ezaguna.

Biok goiztiar jokatu, bitzuen arrangura dugu hiztegiarena. Iritzietan, ostera, bata bestearengandik urrun samar. ARANAREN ahalegina, hasiera ezaguna. Hasierako haren idaztietan edonon ikus daiteke horretarako kezka. Adibidetzat har dezakegu, besterik gabe, ARANAK (51) berak idatziriko *Umiaren lenengo aizkidia* (1897) liburutxoan jarri zuen eranskina: *Ingurti onek daukazan itz barrijak*. Hitz horien artean erraz antzeman daitezke lege esanahia dutenak ere:

*agintz* (mandamiento), *aberi* (patria), *arrotz* (extranjero), *arpide* (suscripción), *arpidedun* (suscriptor), *arpidaldu* (suscribir), *autetsi* (elegir), *edesti* (historia), *ordelari* (representante), *luiki* (territorio, país), *landola* (oficina), *salneurri* (precio), *sendi* (familia), *sengi* (hijo, hijas), *sendu* (engendrar), *irazi* (libro), *ikurrin* (bandera), *ikurton* (sacramento), *ikastola* (escuela), *irasi* (fundar), *bildegi* (depósito), *bazkun* (sociedad, compañía).

ARANAREN kasuan hizperria bazen nagusi, AZKUEk berebiziko oinarri eta pisua ematen zien euskal hitzaren tradizioari eta euskararen berezko altxorari, hizperrigintza ahalik eta bazterren erabiliz.

Bi hizperrigintza zeuden jokoan (52) eta tenka horretan dabil garai horretako euskalgintza. ARANA, jakina denez, gazterik hil zen. Hura hilez gerokoa

(51) ARANA, S.: "Umiaren lenengo aizkidia", *Obras completas*, Sabindiar-batza, Buenos Aires, 1965, 1016-1066. orr.

(52) Bion arteko ezaugarriak ederki asmatu ditu PAGOLAK *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri* lan estimagarrian:

"La labor neologista de AG se desarrolla en tres direcciones:

a) Sustitución de términos «alienígenas».  
b) Creación de voces que satisfagan las nuevas inquietudes.  
c) Perfeccionamiento de formas indígenas [...].

Lo cierto es que Azkue es esencialmente tan purista como AG. Casi no hay neologismo de

da, hamabost urte geroagokoa, hain zuzen, Euskaltzaindiaren sorrera (1918). Sorrerako Euskaltzaindi horri hasiera-hasieratik axola zaio euskararen auzia, berba eta joskera ere barne.

Berbategiaren beharreak ikusten du bere burua erakunde berriak eta lanean hasten da. Aldapaz gorakoa izango zaio, alabaina, erakunde berriari euskararen berbategi kontua. Ardura horrek bultzatzen du, ezbairik gabe, bere *Euskera* aldizkariaren lehenengo aleetan agertzen den *Itz Berrika* (53). Bertan, urruti joan gabe, Zuzenbideari hertsiro loturiko berbatxoak aurki ditzakegu:

*aberri* (patria), *abertzaletasun* (patriotismo), *araudi* (regla), *artetzaille* (gerente), *autarkitalde* (turno de votación), *aurtarkuntz* (votación), *auteskunde* (votación), *baldinkuntza* (comisión), *batzaldi* (reunión), *batzorde* (comisión), *bazkun* (corporación, asamblea), *bazkunde* (corporación), *errikoi* (patriota), *erritasun* (ciudadanía), *erizpen* (dictamen), *erki* (región), *erki-gutundegi* (biblioteca municipal, provincial), *errolde-izen* (título), *esertaldi* (sesión), *gizamaila* (jerarquía), *gotzaiñ* (obispo), *guda-yaurtari* (gobernador militar), *idatzaiñ* (secretario, archivista), *iraskunde* (institución), *jakide* (cultura), *jartzaille* (fundador, organizador), *lankai* (instrumento), *legejakintza* (ciencia del derecho), *lurrizenbatzaille* (comisión de toponimia), *yaursail* (comisión de propaganda), *zadortari* (secretario), *zarpiketari* (gobernador), *zeindiñ* (carácter, cualidad).

Badira, izatez, garai horretako Euskaltzaindian autu horretaz arduratzeko legelari trebeak. Horien artean FEDERICO BELAUSTEGIGOITIA eta BONIFACIO DE ETXEGARAY, biak abokatuak, izan daitezke sonarik zabalekoenak, GONZALEZ ECHAVARRI eta NAZARIO OLEAGA ere alboratu gabe.

BELAUSTEGIGOITIAk aspalditik esana du, 1909. urtetik, hain zuzen, zertan den bere iritzia. Urte horretako berbaldi batean (*Por la lengua nacional vasca*), euskara gero eta erdararen menpekoago ikusten du. Horri buelta emateko neurriak plazaratzean, jakina, Zuzenbidearekikoak ez ditu zokoratzen

---

éste para el que aquél no ofrezca alternativa; en cambio, no puede decirse lo mismo de AG con respecto a Azkue, sin duda porque éste vivió muchos más años. Azkue participa de la obsesión de AG por rehuir los préstamos; lo que le reprochan al creador del nacionalismo vasco es su imperfecto conocimiento del idioma, es decir, básicamente, el quebrantar las leyes fonéticas de la composición y derivación contrayendo en exceso los vocablos [...]; y la creación innecesaria de los mismos por existir en la lengua términos equivalentes por muy remotos y arcaicos que éstos sean [...]. Azkue sólo recurre a la formación de voces nuevas una vez ha agotado esta última vía; en cambio a AG la sustitución de préstamos le conduce casi siempre al neologismo, sin duda porque su conocimiento del léxico vasco es notablemente inferior al de Azkue, pero sobre todo porque, contra la tradición (Oihenart, Larramendi, etc.) que Azkue no interrumpe, para él no existe, si no es en un cierto nivel de abstracción, el léxico vasco patrimonio de todo el euskera. El euskera no es uno, sino varios y cada dialecto ha de habérselas con sus propios recursos" (PAGOLA HERNANDEZ, I.: *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, EHU, Gasteiz, 1987-1988, I eta II. liburukia).

(53) EUSKALTZAINDIA: "III<sup>oa</sup> Itz Berrika", *Euskera*, I. urtea, 2 (1919-1920), 90-95. orr.

idazle horrek (54). Horretarako, dena den, euskara bera egokitu behar. Egokitzapen horretan hitzak behar ditu euskarak, Laudioko legelariaren iritiz (55).

BONIFACIO DE ECHEGARAY dugu, gerra aurreko Euskaltzaindi hartan, gai honetaz sakon eta luze arduratu zena, ARANA MARTIJAK (56) egoki gogoratu digunez. Euskaltzain oso horrek lege ikasketak bukatu eta Espainiako Auzitegi Gorenaren Gela bateko idazkaritza eskuratu zuen. Euskal Herriko foru eta ohiturak maite zituen zumaier horrek lan ugari ekarri zuen euskara eta Zuzenbidearen alorrera. Bera ere laster ohartu zen gaiaren garrantziaz eta bi ikergune berezi hartu zituen, agi denez, bere zereginetan: lehenak euskarak antzina bereganatu zituen berba juridikoak batzea zuen xede. Honela dio berak (57), Euskaltzaindiaren aurrean diharduela, 1930. urtean:

*Creo que ha de ofrecer interés no escaso la formación de un vocabulario de palabras que expresen ideas, que directa o indirectamente trasciendan al orden del Derecho [...]*

*Conviene que diga, antes de pasar adelante, que mi propósito no alcanza a otra cosa que a recoger aquellas formas que entrañan un valor en las múltiples modalidades que afectan a las relaciones derivadas de los conceptos fundamentales de familia, propiedad, sucesión y contratación, o sea a lo que se llama Derecho privado.*

*Han de ser descubiertos mediante las noticias que suministren personas de edad, de inteligencia despierta, y las que proporcione una escrupulosa busca en libros y documentos antiguos. Esta labor ha de ser de eficacia segura, pues el pueblo se acomoda mejor al empleo de palabras que alguna vez se han conocido, aun cuando se hubiere desvanecido la huella de su presencia en el hablar ordinario y corriente, que al de aquellas otras de nueva creación. La experiencia aconseja que se limite a lo*

---

(54) GRANJA, J.J.: "La obra y las ideas de Federico Belaustegigoitia", in *Federico Belaustegigoitia (1876-1947)*, Arabako Foru Aldundika, Kultura Saila, Gasteiz, 1989, 92. or.: "Como ya hemos dicho anteriormente, Belaustegigoitia no era tan sólo un observador de la situación del euskera, sino que proponía soluciones a su decadencia. Entre los objetivos para ayudar al euskera establece el siguiente:

Extender documentos privados en euskera y testamentos".

(55) GRANJA, J.J.: "La obra y las ideas de Federico Belaustegigoitia", in *Federico Belaustegigoitia (1876-1947)*, Arabako Foru Aldundika, Kultura Saila, Gasteiz, 1989, 93. or.: "En este aspecto también tuvo que contradecir a muchos de sus correligionarios políticos, fieles a las doctrinas aranistas, por lo que caían en frecuentes exageraciones del léxico, flexiones verbales o construcción sintáctica. Ante ellos, Belaustegigoitia prefiere el idioma menos puro pero más útil como instrumento de comunicación oral y literaria".

BELAUSTEGIGOITIA bera ere, aiurri beretik: "Izkera indartsu geyenak anartu dituen itz yaintsu ta bestelako asko geuretu bear ditugu, batez ere gure artean gutxi erabillen diran lanbidekoak, ta ordezeko erraz bat aurkitzen ez zayenak" (BELAUSTEGIGOITIA, P.: "Arau nagusiak", *Euskera*, I. urtea, II. zb, 2. atala, 1919-1920, 63-64. orr.).

(56) ETXEGARAIren bizitza eta lanaz, ikus ARANA MARTIJA, J.A.: "Bonifazio Etxegarai eta Korta", *Euskera*, 24 (1979), 45-59. orr.

(57) ECHEGARAY, BONIFACIO: "Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas", *Euskera*, 1 (1930), 72 eta 73. orr.

*puramente indispensable el número de los neologismos, y es punto que debe meditararse si en la materia a que me refiero es conveniente acudir a aquellos en todos los casos, o si al igual de lo que se ha hecho en otras lenguas, basta con tomar de las clásicas tales medios de expresión, adaptándolos al genio del idioma vasco. Problema es éste que habrá de ser resuelto por la Academia con autoridad inapelable.*

Bestetik ere badabilkigu zumaiarraren arnasa, Euskaltzaindiaren 1926. urteko azaroaren 25eko bilkuraren agiriak (58) argi erakusten digunez:

*Etxegaray jaunak adierazi digu, egin nai lukela lege-gizon artean dabilzitan itzen iztegitxo euskaldun bat. Oraingoz ez dakar besterik: Belena ta Kardaba nolaz eta zertaz esaten diran. Euskaltzaindiak gogoz entzun diyo ta lenbailen datorrela Etxegaray egin nai luken iztegi ori.*

Abegi onez ikusi zuen, beraz, gerra aurreko Euskaltzaindiak Zuzenbide hiztegiaren inguruko asmo berria.

Berehalakoan, Euskal Herriko Mendebalak autonomia eskuratu zuen Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, eta horrek bidea erraztu zion euskarari Zuzenbidearen bitarteko izateko. 1936-1937. bolada labor bitartean, Eusko Jaurlaritzak bere kautan jardun zuen euskara hizkuntza ofizial gisa erabiltzen eta, ageri-agerian ere, euskal hitz juridikoen premia gorria nola edo hala betetzen.

Ahalegin horren egileak, nolana ere, euskararen barnean lehendik ziren hitz juridikoak erabiltzera lerratu ziren neurri batean, hizperrien bidea nagusiki hartu bazuten ere (59).

Horrenbestez, gerraren poderioz hilean gelditu zen horrek bazuen nondik jo (60). Horren ostean, porrot mingotsa eta gerra ondoko giro iluna.

(58) EUSKALTZAINDIA: "Euskaltzaindia'ren batzar-agiriak. Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Azaroa'ren 26'an", *Euskera*, VIII. urtea, I-II zb., 1927, 36. or.

(59) LEIZAOLA, J.M.: "Irakurleei", in *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*. Leopoldo Zugaza, Durango, 1977: "Esanbearrik ez dago —dio Leizaolak, orduko Eusko Jaurlaritzaren boletinaren atarian— nere «Oroagindua» laphurtarretik oro hitza arlurik eta Zaingoa nik aspalditik Zuberoko lege-Zarrean artzaintzarentzat erabilia irakurriya neukalako Eguneroko ortan sartu nitala.

Itzultzaileen lanaren erudutzat, izendatze bakar bat aukeratuko det. Erdarazko «Juzgado de Instrucción» aitzatzeko «Epailetza Argibidelaria» irakurtzen da urrengo orrialdetan.

Ba, erdal-iztegingintzan instrucción ori zer dan adierazi nayeon elucidación edo elucidar hitzak emango zaizkizute, lux, luz (argia) itz bakunak sustrai bezala dutenak. Euskal itzulpena benetan egokia iruditzen zait aurrean daukazuten Egunerokoarena."


(60) IVAP-HAEE: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera)-HIZTEGIA*, IVAP-HAEE, Gasteiz, 1997. Ikusalde beretik, LOBERA, A.: "Hainbat jakingarri *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren gainean*", *Karmel*, 3 (1995), 28-55. orr.

## III

**Lege gizonen behar duten hiztegi berezia**

Esana dugu, errepikatu beharrean gaude. Azken hogeita hamar urteotan, erabakigarri gertatu da hizkuntzaren batasun bidea eta, ondorenez ere, horren gaurkotzea, jakintzagai desberdinetako hizkuntza eta hizkera bihurtzeko edu sakona.

Horren bitartez, ezari-ezarian hasi dira eztabaidatzen eta zabaltzen hizkuntzaren inguruko bestelako dinamikak. Dinamika horiek eraman gaituzte, besteak beste, *euskara batua-euskalkiak* bikote horren aldamenean, bestelako tirabirak ere plazaratzera, alegia, *hizkera arrunta-hizkera berezituak*



Bilbo, 1998ko otsailaren 27an

*Euskaltzain osoak:* 1. Luis Villasante; 2. Jose Antonio Arana; 3. Federico Krutwig; 4. Txomin Peillen; 5. Antonio Zavala; 6. Juan San Martin; 7. Henrike Knörr; 8. Pello Salaburu; 9. Xabier Kintana; 10. Jose Mari Satrustegi; 11. Jean Haritschelhar; 12. Francisco Ondarra; 13. Miren Azkarate; 14. Andrés María Urrutia; 15. Ibon Sarasola; 16. Patxi Goenaga; 17. Beñat Oihartzabal; 18. Juan Mari Lekuona; 19. Emile Larre; 20. Xabier Di-harce 'Iratzeder'; 21. Pierre Charriton; 22. Jean-Louis Davant.

gogorarazten diguten dema bizi horietara. Bertan ikusten dut nik, buruen-buruenik, MIKEL ZARATE zenak Labayru Ikastegiaren ikasturte haietan erakutsia. *Dakigunetik ez dakigunera* idatzi zuen hark, bizkaitarrok baturako bidean egin behar genuen prestatze lana izendatzeko. *Dakigunetik ez dakigunera* hori egun ere erabilgarri gerta dakiguke, aurretik eta ahots desberdinetatik datorriguna biltzen jakiteko eta etorkizunerako osagai baliagarriak bihurtzeko.

Bidegintza horretan, horra hor, duela urte gutxi sinestezina zena, gorputz egina, mamitsu bezain sendoa, agindu eta intziri berrien iturburua. Esparru berri horiek euskararentzat zer ekarri, eta horretan gabiltza une honetan, aurrera egiteko eginahaletan.

Horren frogak edonon hauteman daitezke. Terminologia zentroek, administrazioek, komunikabideek, unibertsitateek... etengabe dihardute langintza horretan, euskara emaitza berrietara moldatu nahian.

Moldatu, itxuratu eta antolatu. Zeregin horietarako dei egin du Aita VILLASANTEK (61) behin baino gehiagotan. Adibide ugari izango genuke. Niri dagokidan aldetik, gogora dezadan zuen aurrean 1972. urtean berak ondu zuena, ARRUE euskaltzain oso zenaren eskariz eta zirikadaz, *Zuzenbidearen* inuruko hitzak zirela eta:

*Joan den hileko batzar egunean Antonio Arrue euskaltzain eta lege gizon jaunak hitz zerrenda bat ekarri zidan beren ofizioko gizonak maizenik erabili behar izan dituzten hitzez osatua. Zerrenda hau ez da luzea. "Derecho privado" deritzaion sailekoak dira gehienbat hitzok. Berak nahi luke hitz hauen euskal itzulpena edo euskal ordaina guk eskeintzea.*

*Nahiz eta zerrenda luzea ez izan, sail berezi bateko hitzak dira, eta ez dut uste lan hau arinki eta nolana egin daitekeanik. Alde batetik, euskeraz ongi jakin behar da, eta bestetik, lege gauzatan jantzia egon. Euskera lege gauzatan gutxi erabilia izan bada ere, agian badira zenbait hitz eremu hontakoak, izkribu zaharretarik, euskal foruetarik edota herriaren ahotik jaso eta kontuan eduki beharko liratekenak.*

*Nolana ere, zailtxoa da ene ustez lan hau. Baditu bere oztopo eta eragozpideak, alegia. Batek bakarrik gogoak ematen dizkion hitzak jarritz edo zernahi hitz asmatuz, ez dut uste gauza onik egingo gendukeanik.*

*Beste aldetik, honelako eskabideei Euskaltzaindiak ezin die muzinik egin. Bere ahalen neurrian erantzutera eta kobru ematera beharturik dela uste dut.*

VILLASANTEK (62) berak erantzunak bilatu gura bai eta proposamen argia egin zuen:

*Zer egin, bada? Bidea pixka bat luzexea goa izanarren, uste dut lehendabizkorik galderak egin beharko direla gauza hoietan adituak diren gizonen ar-*

(61) Aita VILLASANTE: "Lege gizonak behar duten hiztegi berezia", *Euskera*, 18 (1973), 203. or.

(62) Aita VILLASANTE: "Lege gizonak behar duten hiztegi berezia", *Euskera*, 18 (1973), 203. or.

*tean. Haien erantzunak jaso ondoren, Mitxelena jaunari bidaliko zaizkio, hark begiratu bat eman eta bere eritzia ager dezan.*

Hala gertatu eta galdezkatuak izateko, VILLASANTEk zerrendatu egin zituen aditu batzuen izenak, itzal handikoak eurok: ARRUE, LOJENDIO, MON-REAL, CARO BAROJA, SANTAMARÍA, ZABALETA, OLEAGA eta MUNIATEGI.

Azken bi horiei aipamen berezia zor diet, urte luzeetan beldurrik gabe aritu baitira euskararen defentsan eta babesean, euskara bera aho-ezpainetan eta lumaidatzian erabiliz.

Betor lehena JESUS OLEAGA euskaltzain urgazle eredugarri eta legelari nekaezina, oraintsu hil zaiguna eta gaur gurekin solaskide moduan atsegin handiz hartuko genukeena. Jarrai bekio horri ABEL MUNIATEGI, berori ere akademiaren urgazle, eta adinez eta tankeraz gure aurreko belaualdikoarena. Gutariko askotxorentzat adibide gertukoa izan da MUNIATEGI, bertsolaritzari ez ezik, Zuzenbideari ere eman diolako bere ekimen aberasgarria. Bera genuen, bestalde ere, hirurogeita hamarrekotan Correo kaleko Verdes liburudendan isilka erosten genuen *Zeruko Argia* hartan noizbehinka argitaratzen ziren artikulu juridikoen egilea.

Aurrenekoa eta hurrena jarrita, ezin bukatu bestea aipatu gabe, hau da, hirugarrena eta azkena. VILLASANTEren lerro horietan aurrera zetorren idazkari bipila, lege eta administrazio gorabeheretan euskaraz idazteari emana eta, geroxeago ere, VILLASANTEk igarri zion lekukotza erruz erakutsi duena: JOSE LUIS LIZUNDIA. VILLASANTEk zioen bezala, Zuzenbidearen inguruko hitzei azken orrazketa emateko, LIZUNDIA ere beharrezkoa zen, *erakunde gauzatan duen trebetasunagatik* (63).

Esan beharrik ez badago ere, trebetasun hori berehalakoan erakutsi zuen LIZUNDIAK (64), *Euskera* aldizkarian bertan agertu baitzuen, lehendabizikoen artean, *Administrazio hiztegiñoa*, bestelako eta geroko errealitateak jaso gabe zeudela.

Bide beretik ez bada ere, antzeko asmoak bultzatua sortu zen UZEI. Horren jaiotza-agiriaren modukoa jaso zuen Euskaltzaindiak 1977. urtean, JOSEBA INTXAUSTIki egin zion aurkezte ekitaldian (65). Hortxe zeuden, bes-

(63) Aita VILLASANTE: "Lege gizonak behar duten hiztegi berezia", *Euskera*, 18 (1973), 204. or.: "Eta gero hitzen azken hautatzea batzorde txiki batek egingo duela. Beraz, delako batzorde hori ere orain jarri beharra dago. Izen hauek proposatzen dira hortarako: *Luis Mitxelena*, hiztegi gauzatan duen maisutasunagatik. *Antonio Arrue*, lege gauzen esparruko bere jakiteagatik. *Jean Haritschehar*, beste aldekoen ordezkari bezala. Eta *Jose Luis Lizundia*, erakunde gauzatan duen trebetasunagatik. *Mixelena* jauna izango da buru eta *Lizundia* jauna idazkaria".

(64) LIZUNDIA, J.L.: "Herri administralgo Hiztegiño baten eskabide eta premia", *Euskera*, 24 (1979), 279-289. orr.

(65) INTXAUSTI, J.: "Euskal Unibertsitatearentzat aurregitura batez", *Euskera*, 22 (1977), 935-940. orr.

teak beste, hiztegi espezializatuak eta unibertsitate jokarauak uztarturik eta, behin-behinekoa bazen ere, egoki ezkondua.

Behialako proiektua sendotu ahala, Zuzenbideari ere bere txanda heldu zitzaion. Horrela, UZEIren barnean biribildu zen lehendabizikoz, modu antolatu, orokor eta oro-hartzaile baten bidez, Zuzenbidearen mundua euskaraz ematea.

Ahalegin hori ez zen, nolana ere, behin betikoa. Hala geratu zen esanda ZUZENBIDEA (1987) hiztegiaren sarreran (66), eta hala gertatu da eginda denboraren harian, berori izan baita geroko hainbat ekimenen bizkarrezur eta mamia.

Baziren eta badira, beraz, Zuzenbide jakintzagaiaren garapenerako osagaiak euskararen baitan. Lehena, hizkuntzaren beraren batuketa abiatze osoa eta bigarrena, aldiz, hizkera berezietan noraezekoa den terminologiaren oinarriak aurrera eramateko beharra. Badira, bide beretik ere, Administrazioaren mundua zein unibertsitateen nekeak, Justizi Administrazioaren hasierako urrats horiek ere zokoratu gabe.

Artean, VILLASANTERen hitz haiek —*Euskaltzaindiak ezin die muzinik egin*— beste ildo batzuetatik abiatuak ziren. Esana zuen Euskaltzaindiak 1959. urtean (67) zeintzuk ziren euskal hitzak. 1991. urteko apirilaren 26an (68) ere berresana zuen Euskaltzaindiak euskal hitzak nondik sustraitu:

*Euskara bizian sustraituak ez daudenak, ez dira euskal hitzak...*

*Azkenik orduan esana berriz errepikatu, inork gaizki adi ez dezan mezua: kultura eta zibilizazioko hitzak, mailegatuak izanik ere, ontzat hartzen dira, hala nola politika, teknika, literatura, metro, kilometro eta abar.*

---

(66) UZEI: ZUZENBIDEA hiztegia (1), Elkar, Donostia, 1987, 29. or.:

“Hiztegiak nekez bil dezake gerora sortuko den edo sortu beharko litzatekeen lexikoa. Hiztegi hau asmatu eta programatzean bertan bururatu zitzaizkigun kezka eta galderak izan ziren: Gaur egun Euskal Herriak duen sistema eta lexiko juridikoaren berri eman behar al genuen, eta “sistema” hori euskaraz adierazteko tresna? Ala Euskal Zuzenbide tradizionalan landuriko —eta bereziki euskaraz erabilitako— kontzeptuen berri? Ala etorkizunerako euskal sistema juridiko euskarazkorako oinarriak jarri eta bideak urratu behar ote genituen? Orain arte esandako guztiengatik, lehen helburuari erantzuten dio gehienbat hiztegi honek. Eta alde horretatik, erdaraz (frantsesez eta espainieraz) landuriko sistema juridiko espainolaren —eta partez frantsesaren— euskarapena da hiztegi hau. Beste helburu biak oso gogoan egon dira, hiztegia programatzean eta lantzean, baina eranskin gisa gelditu direla esan behar da. Halabeharrez!

Hor daude, hala ere, bigarren asmoa, neurri batez hiztegi honetan burutua, eta hirugarren helburua, hasieratik adierazia eta hiztegi honen bidez irekia eta bideratua. Izan ere, Euskal Herriak, bere burujabetza lortzean eta bere berrikuntza juridiko-instituzionalen eta bere kultura-hizkuntzako berreskurapenaren euskaraz sortu, landu, erabili eta gorpuztu behar duen sistema juridikoa bideratzeko oinarri eta abiapuntu baliagarria dela uste dugu Zuzenbide-hiztegi hau...”

(67) EUSKALTZAINDIA: “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz”, *Euskera*, 4 (1959), 215. or.: “Euskal itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak. Sustrai hori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat eta eskubide geiago du itz batek erabilia izateko”.

(68) EUSKALTZAINDIA: “Euskaltzaindiaren adierazpenak: Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz”, *Euskera*, 36 (1991), 445. or.



Era berean, hiztegi espezializatuen eremuak ere beste lorratz batetik joan behar zuela aldarrikatu zuen Euskaltzaindiak (69) 1982. urtean:

*Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an bildurik, Euskaltzaindiak honako hau aditzera ematen du: Euskaltzaindiak literatura eta gramatikaz beste alde, hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetarikoa...*

*3. Zuzenean ez da Euskaltzaindiaren lana, beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko puntuak zaintzea izan ezik.*

*Hizkuntz teknikoetan Euskaltzaindiak pozik ikusten du grafia gai orokorretan erabakiak daudenean harrera ona izan dutela. Erabaki gabe daudenak lehenbailehen argitzen ahaleginduko da.*

*Ezin hobeki deritza Euskaltzaindiak edonork taldeka nahiz bakarka arlo honetan lan egiteari.*

Urte batzuk geroago, JEAN HARITSCHELHAR euskaltzainburuak (70) ere mezu berbera luzatu zuen:

*Azkenik Euskaltzaindia delakotz hizkuntzaren zaintzalea, hiztegi espezializatu guzietan behar lukete Euskaltzaindiaren oniritzia ukan, batasun bat ukan dezaten denek ortografiaren aldetik edo joskeraren aldetik.*

Gauzak horrela, azpimarratzekoa da, jakintzagai espezializatuak dagokienez, Euskaltzaindiaren eginkizuna non egon daitekeen. Adibidetzat hartuko dut Zuzenbidearena, gauza bera esan dezakegula bestelako arlo eta jakintzetan ere.

Denon ikusmira eta aho-entzunetan dago Euskaltzaindiak azken bospasei urteotan darabilen araugintza. Hamaikatxo argumentu dabilta airean eta guztiak, jakina, ezin aztertu.

Eskuragoa izango nuke, besterik ezean, araugintza horrek (hiztegi gintza ere barne) zer-nolako ondorioak ekar ditzakeen eremu espezializatuetan eta, batik bat, nire hitzaldiaren hasieran azaldu dudan moduan, hizkuntzarekin lotura zuzenekoa eta barnekoa duen Zuzenbidearen arloan.

Lotura estukoa, beraz, hizkuntza eta Zuzenbidearen artekoa. Estuagoa, oraindik ere, hizkera arrunt eta hizkera juridikoaren artekoa, azken horrek gehienetan hitz arruntak zamaten baititu karga semantiko beregainarekin. Esan gabe doa horren indarra eta, zehatzago, indar performatiboa, hortik zehazten baitu hizkera juridikoak berak arautzen duen errealitatea.

Nola lotu, horratio, bitzuok? Hirutara ikusten ditut nik lotura-guneak:

(69) EUSKALTZAINDIA: "Euskaltzaindiaren adierazpenak: Hiztegi gintza", *Euskera*, 27 (1982), 271. or.

(70) HARITSCHELHAR, J.G.: "Administrazioaren eginbeharra hizkuntz minorizatuak etorkizunean", *IVAP. Hamar urte*. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 1994.

### 1. Hiztegi orokor-hiztegi espezializatu eta berezien arteko tenkadura.

Hizkera juridikoak, aurretiaz ere esana dugu, berebiziko lotura du hizkera arruntarekin. Beraz, hizkera arruntan gertatzen (eta finkatzen) den horrek ondorioak ditu berehalakoan Zuzenbideak darabilen hizkera moldean.

Har dezagun adibidetzat Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua. Dagoeneko lehen itzulian eduki neurriko du ikusi eta onetsia Euskaltzaindiak. Zerrenda luze horren barnean murgildu ahala, ugari Zuzenbidearekin zerikusirik izan dezaaketen berbak:

*Abokatu (abokatu defentsari), abortu, absentsia, akusatzaile, aldundi, aloger, alokairu, amnistia, atxiloketa, autonomia, auzitegi, bahi, bahiketa, bahitura, baimen, baltzu, banku, besterendu, biktima, burtsa, debeku, deklarazio, demanda, demokrazia, departamendu (Frantziakoa), departamentu, despeditu, deusez, dibortzio, diputazio, dokumentu, ebatsi, ebatzi, enkante, epai, epaiketa, epaile, epaitegi, epaitu, erail, erantzukizun, erkidego, errenta, erres, eskribau, eskribautza, eskualdatu, eskura ordaindu, eskubide, estatu, estatutu, etxaguntza, ezkonsari, foru, gobernadore, gobernu, gordailu, gozamen, heredatu, herentzia, hipoteka, hipotekatu...*

Areago bigarren itzulian, egoki ematen badira, agindu legez, hizkera espezializatuen aukerako hitz eta esamoldeak.

Harira aurretik eta laburrean eman behar badut ere, ezin isildu terminologia lanean, eta gaurko gaiarekin duen lotura dela eta, Euskaltzaindiak ondu zuen *Burtsa hiztegia* (71) (1991). Hor erakutsi zituzten batzuek euren jakituria eta trebezia horrelako gorabeheretan. Hiztegi horren joraketan jardun zuten, besteak beste, ERKIAGA, GEREÑO eta GURUTZ ANSOLAK, ARANA MARTIJA euskaltzain osoaren burutzapean.

ERKIAGAREN oroitzak zirrara berezia egiten dit barretenan. Berarekin nire adiskidantza eta harreman kuttunek nire euskal zaletasuna markatu zutela jendaurrean aitortu beharrean nago. ARANARENak, aldiz, sarri eman didan laguntzagatik, eskerrak emateko izan behar du. Eskerrik barrukoenak, euskaltzainen artean bera jarri dudalako behargin, zuen aurrean neuri zirtolariarena egiteko. Horretarako ere banituen eta baditut kari bereziak, besteak beste, etxean bizi izan dudan gernikartasun hori eta ARANAREkin etxe honetako hainbat batzordetan izan ditudan harremanak. Biok legelari izanda, berari dagokio euskara eta Zuzenbidearen inguruko proiektu askoren aitzindaritzatza. Betoz hona, adibide gisa, lehen aipatu dudan UZEIREN ZUZENBIDE hiztegia eta, nire lanbideari dagokionez, Bilboko Notarioen Kolegioko itzultzaile ibili izana, 1985-1989 urte bitartean.

ERKIAGA eta Lekeitio barru-barrutik loturik daude. Era berean, nire bizi-tza kontuetan, Lekeitio eta Ondarroa, berorietan eman baitut, gogoz eta no-

(71) EUSKALTZAINDIA: "Burtsako Hiztegia", *Euskera*, 3 (1991), 1149-1157. orr.

tariotza lanez, hainbat urtetako egotaldia. Bertako euskara bizi ahal izan dut, bertan ere sendotu ditudala ERKIAGA eta ZUBIKARAren itzalpean, euskararen aribidea eta jatortasuna.

Haria etena dudalakoan egongo zarete. Nik, ostera, halakorik ez, bi izen horiek euskararen munduan hizkuntza bizi eta jatorrenaren ikurrak baititut.

2. Horrexegatik dut, halaber, kezkaburu sakona diskurtsoarena; hain zuzen ere, euskaraz eman behar dugun *continuum* delako horren harilketa eta bilbaketa. Terminologiarekin batera, hizkera espezializatuetan behar-beharrezkoa da halakoa, batez ere, Zuzenbidearen arloan, bertan gauzatzen baita beste hizkuntzekiko morrontza, hizkuntza horiek (frantsesa, gaztelania) euskaldunok bizi ditugun sistema juridikoen eramaile petoak direnean. Horretara dator orain arteko gatazka, itzulpengintza dela eta ez dela, itzulpengintza horretatik ihes egitea lortzen bada bederen.

Terminologiak eta diskurtsoak orpoz orpo garamatzate beste puntu batera, alegia, gure arteko autuetan bizi-bizirik dagoen euskararen kalitate esparrura. Aspaldiko eta betiko leloa, hori. Kontzeptu bihurria, inondik ere, hizkuntzaren kalitatearena. Kalitateak zuzentasuna eta egokitasuna dakartza. Zuzentasunak gramatikari heltzen dio. Egokitasuna, ostera, komunikaziorako ituan dabilkigu.

Zuzenbideari gagozkiolarik, Euskaltzaindiaren araua gizartean barrena zabaltzea zuzentasunarentzako oinarria da. Egokitasuna, edozelan ere, eskakizun handiagokoa da, berez ekartzen baitu komunikazioa hiritar orekin lortu beharra, hari horren adarretan egon daitezkeen hiritar guztiak baitira haren har-tzailak. Bereizi beharra, beraz, komunikazio mailak eta mezuak. Horretarako moldeak ere aurkitu behar, euskarak orain arte izan dituen aurrekariak ez baitira beti egokiak izan, esku artean darabilzkgun beharrizan berrietara iristeko.

Molde horiek nola landu eta aitzindariak Bizkaian eskura nituela plazaratu behar. Izan ere, bi ditut alderagarri gaur, bion lana ezagutuko duzuelakoan. Lehena, kronologiari dagokionez behinik behin, Aita IPOLITO LARRAKOETXEA karmeldarra, Zeanurikoa eta *Legoaldi ezizenez* euskal literaturan eza-guna. GRIMM anaien ipuinak nork euskaratu eta berori dugu euskaratzailea. Era berean ere, Erromako Eleizearen Araudiaren (*Codex Iuris Canonici* deiturikoaren) itzultzailea dela aitortu behar, euskaraz egin gabe zegoena egina bihurtuz (1978. urtean argitaratu arren, aurretik zegoen eginda) (72). *Eginak ez*

---

(72) LARRAKOETXEA, Aita Ipolito: *Erroma'ko Eleizearen Araudia*, Kardaberaz bilduma-32, Técnicas de Difusión, Tolosa, 1978, 4. or.: "Lege-gizona eta euskal-idazlea, biak batu eta alkatu dira emen. Gaztetako lana da, 1924 inguruan amaitua. Orduko euskal-giro eta bizualdi baten agergarri ederra. Eleizalde-tar Koldobika zanaren asmoai jarraituz ibilli zala dirudi, Jaun onek Bizkaí'ko Aldunditik ainbat lan egin eta eragin izan eban euskerea edozertarako gai egin-naiez, edozein gaitarako testoak atera gurez. Eleizalderen eriotzeak eta 1923'ko zapalketa-aizeak ondatu eban dana Orduan egindako lan askoren aztarrenik ez da gelditu. Zorionez, Aita Larrakoetxeak egiña, Eleizearen lege barriak euskal-soinekoz jaztea, ez zan galdu. Eta azken-urteetan Erroma'ra bialdu jakon eta berak makiñaz jo eta arean (zerbait) orraztu egin eban. Lan au amaitu

*du eginkizunik* dio atsotitz zaharrak. Hala uste zuen, antza denez, PEDRO PUJANAK, foruz bizkaitar, ohorez euskaltzain eta jaiotzaz Aramaioko elizatean dagoen Oleta auzoko semeak, 1981. urtean Bizkaiko Foru Berriaren testua euskaratu baitzuen, Aita ZABALAK deitoratu zuen lan berbera bere eginez. Egoki ondu bazuen ere, LEKUONAK (73) bere ekarriak egin zizkion testu horri, bi horiek euskara eta lege kontuetan zer erakutsi handia zutela guztion aurrean jartzeko.

3. Hirugarrenez ere, gogoratu behar dut Euskaltzaindiak hartu dituen erabakiek dagoeneko hainbat ondorio izan dituztela hizkera juridikoan. Gure egitura politiko batzuen euskal izenez, hitz elkartuen osaera eta idazkera, *-zio*, *-ari (-lari)* atzizkiaz, *-ari/-ario*, *-go* atzizkia eta izen multzokariak eta abarrekoak bistan dira eta eurotan sakondu beharrik ez dago (74).

Horietan guztietan badu zeresanik Euskaltzaindiak. Hala gogoratu zigun PATXI GOENAGA (75) euskaltzain osoak, nik gaur dudan atezu edo estualdi berberean bere burua ikusi zuenean:

*Arau batzuk jadanik emanak daude eta datozen urteotan gauzak finkatuz joan dira. Jendeak ahaleginak egiten ditu arauok ikasi eta betetzeko. Administrazioaren eginbeharra bere kontrolpean dituen alorretan arau horiek beteaztea izango da.*

Beude haren hitzak, azkenez ere, hurrengo eta azken gaiaren atari gisa. Atari pisuzkoa, bertan azaldu nahi dudalako Euskaltzaindiak duen lege indar eta eragina aurreko zeregin horietan jarduteko.

## V

### Euskaltzaindia, erakundea ote?

Hasieran bertan, harako bikoiztasuna jarri dizuet begi aurrean. Orain, berriaz, nire ahalegina amaitzear dagoela, ezin aipatu gabe utzi, lanbideari dago-

ta laster il zan bera, Markiña'ra atseden billa etorrita".

Horren inguruan ikus sakonago LOBERA, A.: "Itzulpen arazo batzuk Aita Ipolito Larrakoe-txearen «Erroma'ko Eleiztearen Araudia»ren Elizako kargu-mailak aztertueran", *Karmel*, 2 (1994), 3-19. orr.

(73) LEKUONA, M. de: "Bizkaï'ko Forua euskeraz", *Idaz-lan guztiak*, Kardaberaz bilduma, 32, 11. Azken urratsak, Técnicas de Difusión, Tolosa, 1987, 168-175. orr. Oro har, zenbaki horretako II. kapitulua ("Eusko Etnografia") kontsulta daiteke (97-193. orr.)

(74) Euskaltzaindiaren arauetatik batzuk: 9. *-zio* (35. or.); 25. hitz elkartuen osaera eta idazkera (135-141. orr.); 45. gure egitura politiko batzuen euskal izenez (239. or.); 49. *-ari (-lari)* atzizkiaz (271 eta 272. orr.); 50. *-ari/-ario* (273-275. orr.); 73. *-go* atzizkia eta izen multzokariak (481 eta 482. orr.). Ikus *Euskaltzaindiaren ARAUAK*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

(75) GOENAGA, P.: "Euskararen batasunaz eta duintasunaz (Patxi Goenaga Mendizabal euskaltzainaren sarrera-hitzaldia)", *Euskera*, 40 (1995), 666. or.

kionez, aurrean esandako hori, alegia, Euskaltzaindiak duen baliabide nagusietariko, euskal gizarteak horretan jarri duen hizkuntz agintaritzaz.

*Agintaritzaz* berba erabili dut. Hala nahita, jakina, besterik ezin baita esan egun batzen gaituen erakunde honi buruz.

Hemen zaudeten gehienok jarraikoaren zuzeneko lekukotzaz eman dezakezue. 1976. urtean Euskaltzaindiak, egotaldi luze, zail eta ilun baten ondoren, Espainiako erregetzaren bultzadaz eragingarriaz jaso zuen, beraren estatutuak onartu eta Espainiako Aldizkari Ofizialean aldarrikatu zirela.

Harrezkero ere, Hego Euskal Herriko herrialdeek bidez beretik ekin zioten Euskaltzaindiaren aintzatesteari, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuan eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren Legean horren inguruko arau propioak ezarri.

Dagoeneko, Frantziako estatuak ere Euskaltzaindiari aintzatesi dio beraren estatutu berezia. Hala itxi da Euskaltzaindiaren *herrialdetasuna*, euskara mintzamolde den lurralde guztietan hala-nolako ofizialtasuna eskuratu baitu gure akademiak.

Historiaren joan-etorrietan, Euskaltzaindiak zaharrak, lau aldundiek batera sortu eta munduratu zuten hark, erdietsita ikusi du urte luzeetan bilaturiko aintzatespena eta, horren ondorioz ere, lege esana eta garrantzia. Lege esana, diot, bestelakoa, hau da, lan sendo eta egokiarena, aspalditik jasoaz baitzuen.

Garrantziak garrantzi, kontuzkoena da, laburretan bada ere, Euskaltzaindiak bera Zuzenbidearen ikusmoldeetik zer den zehaztea. Abagune egokia dugu horretarako, baita hiru lerro nagusi hauek gogorarazteko ere:

a) Erakunde dugu Euskaltzaindia. Erakunde berezia, berari baitagokio euskara kontuetan agintaritzaz, legez eta moldez.

b) Euskaltzaindiak nortasun juridiko osoa du, Zuzenbide publiko zein pribatukoaz, bere helburu eta xedeetan tinkoki jarduteko (76).

c) Horretara, Euskaltzaindiak berebiziko ahalegina egin du eta, erakunde ikuspegi horretatik, badu zeresanik, herri eta gizarte honen osagai ezinbestekoa den euskararen baitan (77).

(76) Ez da, beraz, Euskaltzaindia edozein elkarteren modukoa. Badu aldarte berezirik eta hala esan du, oraintsu ere, SARASOLA euskaltzain osoak: "Euskaltzaindia, bere burua «erakundetzaz» hartzen duten zenbait *elkarte* ez bezala, *erakunde* bat da". (SARASOLA, I.: *Euskara Batuaren Ajeak*, Alberdania, Zarautz 1997, 70. or.).

(77) SARASOLA euskaltzain osoaren hitzak dira jarraikoak, Euskaltzaindiak zehaztu zuen *erkidego* hitzaren peskizan: "Eta ohar lotsagabe bat bukatzeko. Erkidego beregain batean erakunde bat dagoenean hizkuntzaz arazoetan ofiziala, erkidego horretako *funtzionarioek* —gainerako herritarrek ez, jakina— erakunde ofizial horrek dioena bete egin behar dute, ados egon nahiz ez, besterik gabe: soldataren barruan doan obligazioetako bat da. Hori gertatzen da bederen nazio izateaz benetan zer den dakiten erkidegoetan, Katalunian esaterako". (SARASOLA, I.: *Euskara Batuaren Ajeak*, Alberdania, Zarautz, 1997, 70. or.).

Helburuak helburu eta erakundetze hori tarteko dugula, beste behin ere, gure begiak bihurtu behar ditugu haren xedeetara.

Lehen begirada azkarrean, bistakoa da hasiera-hasieratik ditugun bi atal horiek beren horretan dirautela. *Iker* eta *Jagon*, betidaniko bitasuna Euskaltzaindiaren baitan.

Argilun samar dago, hala ere, bikoiztasun horretan. Jagoteko zereginetan gero eta nabariagoa da, denborak aurrera egin ahala, Euskal Herrian ari diren administrazioen eragina. Gertaera berria ere ez dugu, alabaina, halakoa. Hizkuntza eta kultur arauak erakusten dute, estatu garaikideetan behinik behin, estatu horiek duten gogo bultzatzailea.

Horien aurrean, Euskaltzaindiari eta, oro har, akademiei aitortzen zaien zeregin *aholkularia*. Honaino hedatzen da hori. Horra hor zinezko gurutzebidea, egun gure Akademiak bizi duena. Hizkuntzaren aldetik gero eta sarriago datozkio eskaerak eta galderak. Baliabideetan, ostera, urri eta motz dabilkigu, ibili ere, Euskaltzaindia. Normatibizazioa du helburu Euskal Akademiak. Horretan dihardu eta horretara emana ikusten da kanpotik. Normatibizazioak, ordea, ezinbestean dakar normalizazioaren inguruan zer egiten den jakin eta ezagutu beharra, bata eta bestea erro-errotik lotuta baitaude.

Horiexek ditu Euskaltzaindiak eginkizunik egingarrienak, horretan baitago sorreratik bertatik jaso zuen mezua: euskararena ikertu eta jagotea, euskarak berak Euskal Herriaren espresabide izateari euts diezaion.

Indarra, formaz behinik behin, legeak eman dio. Eragina, luze-sakonean, eguneroko lan duinak ekarri eta ekarriko dio, horrela ulertuko baititu gizarteak Euskaltzaindiaren esanahia eta zereginak.

Amaiturren nagoela agindu dizuet aspaldi, eta amaitzeko tenorean nagoela gogoratu behar diot nik neuk ere nire buruari.

Zerbait ari da aspalditik euskararen baitan. Mendeotako itzuleran, eta egungo katramilak gorabehera, euskara joriago, jasoago, erabiliago ikusten dugu bazterretan, euskara estekaturik baitago herri honen bizimodu, bizinahi eta gizalegean.

Hori ikertu eta jagotea dagokio Euskaltzaindiari, baina, aldi berean, euskal gizarteari eta euskaldunoi ere. Horretarako tresna egokia dugu euskaldunok Euskaltzaindia, baldin eta euskararen bizitasun eta bizilegeari men egiten badaki (78).

---

(78) Antzekoa azaldu digu berrikitan SÁNCHEZ ASIAIN adituak, akademien ibilbideak zehaztean. Hitzak berarengandik jasoak ditut eta dauden-daudenean eskaintzen dizkizuet: "Porque parece claro que las nuevas inquietudes del individuo humano necesitan hoy nuevos foros de sedimento y reflexión. Y unas nuevas academias que sean capaces de crear nuevos estilos de pensamiento, y nuevos paradigmas científicos, desde los que se puedan dar respuestas al sentido del

Hizkuntzek etengabeko egokitzapenak behar dituzte mundu aldakor honetan. Egokitzapen horretarako gidari izan daiteke, gidari izan behar dugu Euskaltzaindia 2000. urtearen atarian. *Iker eta jagon; ekin eta jarrai*; aldi berean ere, *zerbitzua eman*, euskararen bizitasuna bermatu nahian.

Luze jardun dut —luzecegi, agian— euskarari legeek opa dioten eremu urria azaltzeko. Orain, nire hitza pausatuko dut. Nire berbak itzaliko dira. Legea —*Zuzenbidea*— beharrezkoa dute gizakiak eta gizarte orok. Esateko modua ere —*hizkuntza*—, bestea bezain premiazkoa. Horren bila noa Arantzazuko haitzartera, hango poetari noakio. Berak, trukean, legearen zurruntasuna samurtu nahian edo, belarrira diost, aholkulari jasekoa:

*BADAEZPADAKO  
egite kontsumaturik  
badaezpadako legez  
legeztatua bada,*

*ez ezak eztabaida  
delako lege hori,  
badaezpada.  
Agintzen daudenek*

*nahiago dute lege  
badaezpadako bat,  
badaezpadakoa  
ez litzatekeen harako*

*egite kontsumatu  
ezbidezko hura  
bideratu baino,  
badaezpada (79)*

---

saber, pero dentro del sentido del vivir" (SÁNCHEZ ASIAIN, J.A.: "Desafíos y oportunidades de las Academias", in *Cuenta y razón del pensamiento actual*, Madril, 1997, 40-46. orr.).

(79) GANDIAGA, B.: *Ahotsik behartu gabe*, Erein, Donostia, 1997, 106. or.





# ANDRES URRUTIA BADIOLA EUSKALTZAIN BERRIAREN SARRERA HITZALDIARI ERANTZUNA

Bilbon, egoitzan, 1998-02-27

Jose Antonio Arana Martija

## I

Behin bakarrik egiten da sarrera Akademian, egindako lanengatik hautatua izanik, eta egiteke daudenetan elkarlanean eten gabe aritzeko; eta ekintza eta jarraipen honetatik ez dago irtetzerik heriotzaren eskuz eta poderioz baizik. Hor geratuko dira lanak, emandako aurrerapenak, dagokiguna hobetzeko egindako bultzadak. Baina Horaziok eta Ovidiok kantatzen zuten *aurea mediocritas* (1), lasaitasun zoriontsutik at egin behar dugu, iraganak ematen digun erudizioa gainditu behar da, ez baita horrekin ezer aurreratzen, eta erdietsi dugun jakituria eta kultur ondarea baztertu barik, gorago jarri gure helburua, etorkizun hobe baterako gure ikerketak zuzenduz. Gogoan daukat nire aitaren esaldia: atzean gelditzen direnei ez begiratu, aurrean doazenak atzean uzteko ahalegin-du baizik. Aspaldidanik idatzi zuen Arnaud Oihenartek antzerako atsoitiz hau: *Beha ez dagoena aitzinara, lerra daite gibelera* (2). Gauza berbera dio bizkaierazko esaldi zahar honek: *Aurrera aditzen ez dana atzera dago* (3).

---

(1) Horazio (65 k.a.-8) eta Zizeron hil zen urtean jaio zen Ovidio (43 k.a.-17) baliatu ziren metafora honekin kontzeptu desberdinak adierazteko. Horaziok, *Ad Licinium* izenburuko kantuan, bizitzan segurtasunez ibiltzeko erdiko bidea hartu behar zuela esaten zion *auream quisque mediocritatem diligit* axioma bezala jarri. Beste era batera adierazi zigan ideia berbera Ovidiok *Metamorfosis* izeneko poemetan, hots, *medio tuttissimus ibis* idatziz. Horazioren kantua Aita Santi Onaindiak itzuli zuen *Odak eta Epodoak* liburuan (1992, 103 or.). Baina nik aipatu nahi izan dudak kontzeptua, Agirre Asteasuakoaren hitzetan *sosegu gozoa* dena, Ovidiok eman zigun 20 urtekin idatzi zuen *Amores* liburuan. Aipatu bi poetak Augustoren garaian bizi izan ziren, aisia, atseginkeria eta luxoz inguratutik. Eta Ovidiok bizimodu baketsu hori maite zuen, esaten baitigu: "Nire izpirituak beti maite izan duen bizimodu lasaiean irautea gonbidatzen naute musek" edo, beste pasarte batetan, "aisitasun gozoan bizitzea zen musek aholkatzen zidatena" eta ez goragoko kargu eta ekintzetara jotzea, dakigunez administrazioan goi mailako karguak eskuratzeko aukera izan zuen Ovidiok eta. *In medio est virtus* baieztatuko digu beste latinezko esaldi ezagunak. Eskertzen diot Xabier Aranburu adiskideari Horazioren alde gutun batetan egin didan oharra.

(2) URQUIJO, Julio: "Los Refranes y Sentencias de 1596" (JU1), *RIEV*, XXIII, 1932, 279 or. Oihenarten 77. atsoitiza.

(3) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1. 423 atsoitiza, 278 or. Honen antzerakoa da 456.a, 528 or.: *Aurrera aditzen ez tana atzerantz jausten da*.

Hitza omen da mundu honetan sortu den gauzarik ederrena. Jainkoak ere haragiz jantzi zuen Hitza, Semea mundu honetara bidali zuenean: *Verbum caro factum est* (4). Ez da ulerterraza, baina, "mutatis mutandis", esaldi galanta eta adierazkorra. Hitza bera da kultura baten altxorra, berenez ederra, kontzeptuaren adierazpena. Kontzeptuak, pentsamoldeak behar ditu kultura batek, eta horien ondorioz sortzen den hitz egokia. Hor dago ondarearen edertasuna eta aberastasuna. Hitzak ondo elkartzearekin dator hizkera. Baina lehenbizikoa da hitzen sormena. Hitz asko sortuak dira, ez beti idatziak, eta hitz anitz sortu gabe daude, kontzeptu berriak etorri ahala. Bi sormen eremu horietan datza Euskaltzaindiaren eginkizuna: Araudiaren lehen artikulua dioenez, b) *Hiztegia biltzea*, idatzia edo gaur euskaltzain berriak proposatu digunez, ahozkotik idatzizkora eraman behar direnak; eta g) *Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea*. Lexikografia da, hain zuzen, lehen apustua: idatzirik, edozein iturritik, datozkigun hitzak, eta idatzi gabeak, herriak dauzkan gure kulturaren kontzeptuak adierazteko darabiltzan hitzak biltzea. Gure kultura osoaren puzzlea betetzeko behar diren hitzak.

Notarioa, goi mailako lege-gizona sartzen da gaur Euskaltzaindian. Alfonso Irigoien bezala Deustuko Unibertsitatekoa, eta haren ordezkari Euskaltzaindikoak. Biak, eta gehiago ere badaude, unibertsitate batekoak, beste unibertsitatekoak dauden bezala. Baina, zer egin dezake notario batek Euskaltzaindian? Aholkularitza juridikoa eman? Eskriturak, hitzarmen juridikoak burutu? Makineria teknikoa sendotu? Halakoak eta gogor eta zakarragoak ere entzun ditugu. Eta ez orain bakarrik, lehen ere Euskaltzaindiaren erabakiaren aurkako iritziak agertuak dira. Baina, zorionez, agortuak ere bai. Aita Villasante euskaltzainburu ohiak, Henrike Knörr euskaltzainburuordeak eta nik Andres Urrutia Badiola hautagai aurkeztu genuenean, teknokraten esparrua sendotzea ez geneukan gogoan, lehen aipatu dudan kulturaren eta hizkuntzaren puzzlea betetzeko urratsak ematea baizik. *Beharra, lege* (5), Zuberoan esaten den bezala.

Nire kaltetan izan arren, benetan behargin jarri nau euskaltzain berriak eta, pozik eta ohorez hartu dut zirtolariarena egitea une honetan. Baina erantzun zorrotzak emateko zirrikitu gutxi utzi dizkit zabalik Urrutia jaun eta adiskideak, denak esan baititu hitzaldi luze, mamitsu eta dokumentatuan. Zirrikituak itxirik hozkirria kendu didanez, inguruan hartu beharko dut arnasa. Gainera, Elizanbururen hitzak erabiliz, *haurride bien artean ongi dago zedarria* (6). Hara hemen, konturatu gabe, hitz juridikoa!

Dena den, ezin dizuet ziurtatu nire erantzuna atsegina izango denik, baina aurrekoa baino laburragoa bai, euskaltzain berriak esandakoak entzun ondoren, Sebastian de la Gandara idazle gernikarrak 1757an idatzi zuenaren arabera os-

(4) SAN JOANEN Ebanjelioa, I, 14.

(5) AZKUE, R.M.: *Euskalerraren Yakintza*. III, Madrid, Espasa Calpe, S.A., 1945, 411 or. 2095 atsoitza, 183 or. Hiru edizio izan ditu: bigarrena 1959an eta hirugarrena 1989an.

(6) AZKUE, R.M.: Op. cit. 1281, 125.

*terantzeco berbac utzac dira* (7) eta. Goi Nafarroan esaten denez, *elerik hobereena, laburrena* (8). Eta nire hitzaldia laburra bada ere, esatekoa taiuzkoa eta egokia izango dela bermatzeko, kontuan izan beharko dut Irigarai euskaltzainak Goi Nafarroan bildu zuen atsotitz hau: *Dakizunaz guti mintza zaite, eta ez dakizunaz bat ere* (9). Ez dadila gertatu bizkaierazko atsotitzak dioena: *Gehiago dino dakiana baino* (10).

## II

Andres-Maria Urrutia Badiola Bilbon jaio zen 1954.eko abenduaren 21ean, Andres Urrutia Korta aita Ibarrangelukoa eta Maria Jesus Badiola Arroita ama Gernikakoa zirela, eta hortik datorkio hitzaldian aipatu duen gernikartasuna. Gabon bezperetan bete ditu, beraz, 43 urte, Euskaltzaindian gazteentariakoa izanik. Indautxuko Jesuitetan bukatu zuen batxilergoa 1971 urtean eta 21 urte zituenean lortu zuen Zuzenbide Lizentziatura Deustuko Unibertsitatearen Falkultatean 1976an. Handik bost urtera, 1981.eko ekainean, lortu zuen notario titulua eta urte berean Euskaltzaindiaren D mailako euskararen diploma. Sinesten diogu ba hitzaldian esandakoa, hots, "euskara eta zuzenbidea izan dituela betidanik lan-tresna eta gogo pizgarriak". Beste euskara titulu batzuk ere lortu zituen, hala nola, Bilboko Hizkuntz Eskolarena (1982), Eusko Jaur-laritzaren B titulua (1986) eta Labayru Ikastegiaren Goi mailakoa (1988). Notario titulua lortu eta urte berean (1981) Ondarroan hasi zen lanean non jarraitu zuen 1994an Bilbora etorri arte, "agur Ondarroako itsaso bazterra" kantatuz eta haizearen aurka boga-bogan, ez baitzen samurra euskararen auzia hiri erdaldun honetan sartzea. Ordurako Itziarren, itsasoari begira, Josefina Saizar Badiola ondarrutarrarekin ezkondua zen 1983.eko irailaren 17an, eta Bilbora ekarri zuen familia, Itziar eta Ane alabekin osotua. Gurasoak euskaldun zaharrak, emaztea jatorrizko euskalduna, Andres euskalduna eta lege-gizona, gaztea, adoretsua, jakituna eta argia. Gerokoak, gero!

Zuzenbide munduari dagokionetik, Deustuko Unibertsitatean irakaslea dugu Andres Urrutia, Foru Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila irakasgai dituelarik. Euskara Juridikoa Mintegiaren sortzaile, koordinatzaile eta irakaslea dugu bertan eta Euskal Herriko Foru Zuzenbide eta Autonomikoko Masterrean irakasle. Bestalde, Lehendakariaren izendazioz Euskara Aholku Batzordearen kidea izan da (1984-1988), Bizkaiko Foru Zuzenbidea eguneratzeko legelarien batzordekidea, Epailen formazioerako ikastaroetan irakaslea. UZEIko Zuzendaritzakoa izanik, *Zirkulazio Hiztegia* (1983), *Zuzenbide Hiztegia* (1984,


(7) ARANA MARTIJA, Jose Antonio: "Gabon Canta de Guernica de 1757", *Euskera*, 1976, 89-98 or. Pasarteia 91. or. Ohartzekoa da "h" letra idazten duela halako hitzetan: *hurira, hirraldi, ahoric, alharic*.

(8) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2258, 192.

(9) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2174, 187.

(10) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1. *RIEV*, XXII, 1932, 340, 76.

1990), *Hirigintza Hiztegia* (1994) partaide izan da. Berak edo elkarlanean prestatuturiko liburu hauek argitaratu ditu: *Euskara Legebidean* (1990), *Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideak: gida liburua* (1990), *Euskara, Zuzenbidearen Hizkera* (1995), *Practicum. Derecho Civil Foral del Pais Vasco* (1995). Baina aipatutakoak huskeriak ez badira ere, proiektu handi bati amaiera ematea lortu du 1997an, Angel Lobera eta ikasle talde baten partaidetzaz: Zuzenbide Zibilaren corpus osoa euskaraz argitaratzea (5 tomo) eta Administrazio Zuzenbidearen corpora (3 tomo). Hainbat Zuzenbideko Jardunaldi eta Biltzarretan hizlaria izan da, eta begiko eta gogoko duen gai honetaz sarri-askotan agertu dizkigu artikuluak *Karmel*, *Jakin*, *Euskera*, *Estudios de Deusto*, *Enseiukarrean*, *Abokatuen Kolejioko* eta *Ondarroa* aldizkarietan. Eusko Ikaskuntza eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko kidea ere da Andres Urrutia.



*Zutik:* Jose Antonio Arana Martija, A.M. Urrutia Badiola-ren hitzaldiari erantzuten.  
*Mahaian:* Andres Maria Urrutia Badiola, euskaltzain oso berria; Henrike Knörr, buruordea; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Patxi Goenaga, idazkaria.

Baina literaturari ere ez dio muzinik egiten. Etxepare, Larramendi, Mogel, Eguzkitza, Erkiaga aztertu ditu. *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratutako literatur lanak *Orrialdeak* liburuan bilduta eman zizkigun 1992an. Galizieratik itzuli ditu Neira Vilasen *Mutiko baserritar baten oroitzapenak* eta *Ni naz...*, Méndez Ferrin idazlearen “Percival” eta “Marisorgina” ipuinak, eta Alvaro Cunqueiroren “Hareazko erlojua”. Ingelesetik itzuli ditu J.R. Tolkien-en “Ainulindale Ainur-en musica” eta James Joyce-ren “Ostatua”. Eta ez dut hauekin euskaltzain berriaren euskararekiko emaitza bukatzen, bukaezina baita eta zaila laburbiltzea.

Eta Euskaltzaindian, zer? EEBS batzordearen kidea, Jagon Sailean partaide eta aldi batez idazkaria, Lege-Ekonomia batzordearen kidea, Oihenarten mendeurrean hizlari Maulen, XIII. Biltzarrean hizlari Leioan, beti gertu eta prest edozein aholku eta laguntza emateko. Euskaltzain urgazle izendatua izan zen Ziburun 1991.eko urtarrilaren 31n eta euskaltzain oso Iraitotzen 1997.eko martxoaren 21ean. Hemen daukagu gaur Alfonso Irigoien euskaltzainak utzi zuen aulkian jersartzen. Luzarorako izan dadila.

### III

*Bidaidek, gogaide* (11) diosku Zalgizeko Bertranek *Euskaldunen Erran Zaharrak* bilduma preziatuan. Atsotitzaren esangura azaltzen digu jarraian biltzaileak zera esanaz: “elgarrekin bidean joaileak, elgarri bere gogokoak erraiten baitituzte”. Gogokoak hitza dela eta, Azkuek “atsegingarria, kutuna” itzuli zuen, baina Urkixok “pentsamendu” zentzua nahiago zuen. Egia esan, berdin zait une honetan, Andres Urrutiarekin bidaide izanik, atseginbide dut eta pentsamoldeetan nahiko ados gatoz, bai bizitza arruntean, arazo akademikoetan eta hitzaldian jorratu dituen ildoetan. Baina bidaide izanik, nire gogokoak nahi nituzke azaldu, gehigarri gisa baino ez bada ere.

*Nori berea da Zuzenbidea* (12) entzun dugu hitzaldiaren hasiera hasieran. Legeriaren arloan, noizbait baino ez bada ere, ibili garenok, badakigu bigarren mendean bizi izan zen Domizio Ulpianori atxekitzen zaiola latinezko esaldi berbera: *Suum cuique tribuere justum est*. Baina askoz lehenago Zizeronek ere gauza bera esana zeukan eta Erromako legerian oso erabilia den esaldia da. Euskal Herrian, ahozkotik idatzizkora bagoaz, Erromako legerian erroturik, gure ekialdeko euskaldunek zerabilten axioma izatera iritsi zen:

*Bakoitzari berea da Ezkurrako legea* (13)

*Egia eta fedea, Ezkurrako legea* (14)

*Bapanari norberarena* (Bidankoze) (15)

*Bapanari berea* (Uztarroze) (16)

Justiziaren zentzu juridiko hau Ulpianoren beste esaldi batekin osotzen du bizkaierazko atsotitz batek, hots, *alterum non laedere*:

*Gatz ze erexkoek inori, ta emak berea edozeini* (17)

(11) URQUIJO, Julio: “Los Refranes Vascos de Sauguis” (JU2), *RIEV*, II, 1908, 677-724 or. 35 atsotitza. AZKUE, R.M.: Op. cit. 2143, 185.

(12) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2703, 218.

(13) AZKUE, R.M.: Op. cit. 1526, 141.

(14) AZKUE, R.M.: Op. cit. 1547, 148.

(15) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2057, 180.

(16) AZKUE, R.M.: Op. cit. Lehen aipatutako atsotitzarekin batera dakar.

(17) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1. *RIEV*, 1930, 166 or. LAKARRA ANDRINUA, Joseba: *Refranes y Sentencia (1596) Ikerketak eta edizioa*, Bilbo, Euskaltzaindia, EL. 19, 1996. *Eretxi* = querer, 207 or.

Aipatu ekialdeko erran zaharrekin, eta azken honen bigarren zatiarekin esanguratsu datorkigu bizkaierazko beste esaldi hau:

*Dabenari dabena* (18)

Feudalismoaren haztarna susmatzen dut Zalgizeko bildumaren esaldi honetan:

*Berea ez dena, jauregikoa* (19)

eta gizartearen egoera hori aldatzen zihoala adierazten digu Erronkariko atsotitz honek:

*Yorea yire ta enea biren* (20)

Beste muturrera jota, alderantzizko jokaera adierazten digute esaldi zahar hauek, nonbait Erromako esaldi honetan sustraituak: *Quae mea sunt mihi, quae tua nostra simul*:

*Bereak oso, besteenak erdizka* (21)

*Bereak bere, bertzenak erdiz* (22)

*Enea ene, zurea bien* (Duvoisin) (23)

*Iseba, enea nihaurentzat, zurea elgarrentzat* (24)

*Enea neuretzat, zurea bioentzat* (25)

*Nerea nere ta zurea gure* (Larramendi) (26)

Norberarena ez dena jauregikoa dela, eta ez beste inorena esan digu Zalgizeko bildumak. Norbaiten jabegoa aitortzen du atsotitzak bederen. Baina inorena ez dena izan daitekeela onartzen du bilduma berak:

*Ez bere, ez berzeren* (27)

Monopolioan errotuta dagoen jabegoa susmatzen da Oihenarten atsotitz honetan:

(18) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2166, 186.

(19) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2117, 184. URQUIJO, Julio: Op. cit. JU2, 27. Ikus: OTAZU, Alfonso de: *El igualitarismo vasco: mito y realidad*, San Sebastián, Txertoa, 464 or. Bereziki 158 or.

(20) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2539, 208.

(21) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2118, 184. Zuberoan bildua.

(22) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2118, 184. Baztanen bildua.

(23) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2285, 194. DUVOISIN, Jean: "Proverbios vascongados", *Revista Euskara*, 1879, 115. atsotitza.

(24) OIHENART, Arnaud: *Proverbes et Poésies basques (1657-1664)*. Edition présentée par Jean-Baptiste Orpustan. Baigorri, Ed. Izpegi, 1992. 509 atsotitza, 29 or. Hau da Orpustanek ematen digun itzulpena: "Ma tante, mon bien sera pour moi seul; le vôtre sera pour nous deux". AZKUE, R.M.: Op. cit. 2575, 210. Elizanburuen idazkietatik hartua dela diosku Azkuek atsotitz hau: *Izana, enea enetzat, zurea biontzat*, hala itzultzen duena: "De lo que haya, lo mío para mi, lo tuyo para los dos".

(25) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1. *RIEV*, XXIII, 1932, 523-524 or. 445 atsotitza.

(26) AZKUE, R.M.: Op. cit. 2285, 194.

(27) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU2. *RIEV*, II, 1908, 192.

*Bere ahal dena, ez biz bertzeren* (28)

Baditugu adibideak ugari gure herrian izan den jabegoari buruzko es-  
kubideen filosofiaz azterketa egiteko. Ikusten denez, euskalki edo azpieus-  
kalkiak bezala, eta historian zehar sakabanaturik zeuden eskubideei buruzko  
iritzi desberdinak. Eleaniztasuna eta legeaniztasuna batera datoz. Horregatik  
esan ahal izan zuen Zalgizek *Herrik bere lege, etxek bera aztura* gero Oi-  
henartek eta Isastik errepikatzen dutena (29). Zuzenbidearen sakabanatzeaz  
badago bestelako arrazoi bat ere, Amaikuzen entzun baitzuen Azkuek *Nausi  
berri, lege berri*, bizkaierazko esparruan *Errege barri, lege barri* (30) esaten  
den berbera.

Eskubide hitzak barnean daraman kontzeptuaz zer esan? Zuzenbidea zu-  
zenaren bila doan bidea bada, eskubidea eskuaren bila doana dela esan behar.  
Eta *esku* hitzak izan du gure klasikoetan *botere, aginte, ahalmen* kontzeptu-  
tuen adierazpen zentzua. Axularrek esaten digu: “Zure arimaren gainean  
esku gehiago hartzen du...”. Hiribarrenek berdin: “Jainkoak erakutsi zuan  
bere eskua hinka hertsi hortan”. Joannes Etxeparek ere: “Esku handia du”.  
Eta abar.

Jabegoaren seinalea ere bada eskua. Behin animalia baten gainean eskua  
jarri ezker, horren jabe bihurtzen zara. Honezaz hainbat adibide ditugu Mi-  
tologian, Biblian, Historiaurreko marrazkietan. Akitaniako Lascaux kobazuloa  
1940an aurkitu zenean, animaliak eta eskuak agertu ziren, haien bila hauek.  
Baina eskubidearen kode bat azaltzen zaigu bertan, eskuak moztuak agertzen  
baitira. Lapurrei eskuak moztzen zizkiotela dirudi, eta sasoi hartan, eta geroago  
ere, lege izatera iritsi ziren halako ohiturak.

*Atzerria, otserria* dela eta, Oihenarten baino lehenago irakurtzen da Zal-  
gizen (31). Baina ez dugu atzerrira joan beharrik otsoekin topo egiteko. Gi-  
zasemeen arteko erronka hurbilago dugu, Tomas Hobbes ingelesaren (1588-  
1679) teorian *homo homini lupus* baita. Eta baditugu gure atsoitzetan esaldi

(28) OIHENART, Arnaud: Op. cit. 91 atsoitza.

(29) AZKUE, R.M.: Op. cit. 1326, 127. URQUIJO, Julio: Op. cit. JU2. *RIEV*, II, 1908, 189  
atsotitza. OIHENART, Arnaud: Op. cit. 229 atsoitza. MARTINEZ DE ISASTI, Lope: *Compendio  
Historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa*, San Sebastián, I.R. Baroja, 1850. Hala itzul-  
tzen du Isastik: “En cada villa, su maravilla”.

(30) AZKUE, R.M.: Op. cit. 226, 46. Gauza bera entzun zuen Azkuek Baztanen: *Nagu-  
si berriak, lege berriak*. URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1, *RIEV*, XIX, 1928, 261 atsoitza,  
557 or.

(31) AZKUE, R.M.: Op. cit. 1518, 141. *Atze-erri, otso-erri* dakar Azkuek Zalgizen 184.  
atsotitzaren idazkera errespetatuz: *Atc'erri, ots'erri*. Hurrengo atsoitzean, hots, 185.ean, zera dios-  
ku Zalgizeko bildumak: *Arrotz maitena, arscan*. Ikus: URQUIJO, Julio: Op. cit. JU2. OIHENAR-  
Tek dakar gero idazkera normalizatua, 49. atsoitzean: *Atzerri, Otserri*.

pesanguratsuak: *Adiskideok etsai* (32). Voltairek idatzi zuena gogoratzen digu Julio Urkixok: “Je prie Dieu de me delivrer de mes amis; quant à mes ennemis, je m’en charge”. Adiskideak ez ezik, etxeakoak ere otso izan daitezke: *Atean uso, etxean otso, ala bizikidea gaiso* (33). Antzerako atsotitzak bildu zituzten Isatik, Oihenartek, Mogelek eta Duvoisinek. Alegietako kutsua dute, latinezko *oves lupu committere* esalditik datozen atsotitz hauek:

*Otsoa artzain* (34)

*Otsoa ardiaren zai* (35)

*Ora otsoen lagun* (36)

Eskubiderik hoberena indartsuarena da eta indarkeria da izaera eta egoera naturala. Gudua bukatzeko hizketatu eta ituna sinatzera heldu behar da, dio Hobbesek, eta gorengo lege gisa herriaren egoera baketsua jartzen du: *Salus populi suprema lex esto*. Hobbesen teoria da (37) eta ez nioko bestelako zentzurik eman nahi, legeaz ari baitgara eta ez politikaz.

#### IV

Euskal Herrietako Foruak direla eta, gai horretaz arduratu diren euskaltzainen aipuak agertzen dira sarrera hitzaldian. Badakit luzeegi joango zela hitzaldia euskaltzain berriak gai horretaz dakien guztia azaldu izan balu. Baina Gernikarekin zerikusirik dutenez, bertan bizi baitziren Etxegaraitarrak, zerbait gehitu nahi nuke. Zuzenbide pribatuaz arduratu zen gehiago Bonifazio eta luzea da bibliografia. Baina hortik aparte esan nahi nuke Espasa Enziklopedian agertzen den *Vasconia* artikulua berak idatzitakoa dela. Karmelok, ostera, gehiago jo zuen Zuzenbide Publikoa aztertzeraz eta denak ez ezik idatzi zituen liburuak aipatuko ditut: *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media* (1895), *Compendio de las Instituciones Forales de Guipuzcoa* (1924), *Epitome de las Instituciones Forales de Guipuzcoa* (1925), eta euskaraz idatzia *Donostiako Fueroa* (RIEV, 1908).

(32) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1, RIEV, VIII, 1914-1917, 37 or. Izatez, bilduman agertzen den testua hau da: *Adiskidok etsai*. Anaien arteko borroka deskribatzen duen Jon Etxaide, euskaltzain ohorezkoaren eleberria datorkit gogora: *Gorrotoa lege*, Euskaltzaindiaren “Txomin Agirre Saria” 1962an irabazi zuena eta aurren 3. ediziora iritsi dena, oñaztar eta ganboarren arteko borroka giroan kokatua Erdi Aroan.

(33) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1, RIEV, VIII, 1914-1917, 39 or. 133 atsotitza. Ikus: LAKARRA ANDRINUA, Joseba: Op. cit. 284 or.

(34) Atsotitz hau ematen digute Zalgizek (11.a) eta Oihenartek (382.a).

(35) MARTINEZ DE ISASTI, Lope: Op. cit. 75. atsotitza.

(36) URQUIJO, Julio: Op. cit. JU1, RIEV, XXII, 1931, 532. or. 347. atsotitza.

(37) HOBBS, Thomas: *Leviathan*, Londres, 1651.



Beste berri bat ere eman nahi nuke Zuberoako Foruaz Jakes Bela aipatua izan baita. Abokatu honen eta Urtubia jauregiko beste ugazaben dokumentazioa ugari agertu da Georges Lacombe euskaltzainaren artxiboan, eta katalogatu ondoren, Federiko Krutwig euskaltzainari eskainitako omenaldi liburuan eman ditut xehetasunak.



*Ezkerretik:* Andres Maria Urrutia Badiola, euskaltzain berria eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Bizkaiko Foruaz zerbait gehitu behar dut. Han idatzirik agertzen diren hitz juridikoak eman dizkigu Urrutia jaunak: *abe(h)urra*, *bidgasa* eta besteren bat. Inork ez du aipatu testuinguru honetan agertzen den *geldoa* hitza: “que ninguno sea osado de pasar gueldo por heredad alguna que sea ajena salvo por camino real”. “Gueldo” ez da erdal hitza, beraz, euskarazkoa da. Pedro Pujana jaunak Foruaren itzulpena egin zuenean zegoen-zegoenean utzi zuen. Baina ez dakigu zer den. Azkuek badakar bere hiztegian eta gaztelaniazko “pavesa” dela dio.

Beste hiztegi batzuk ere badakarte, baina ez diote, ene ustez, Foruan daukan adiera edo esangura juridikoa ematen. Forua gaztelaniaz idatzi zutenek adierazi nahi izan zutena izan zen “alperrarria” edo metatesis bat eginda Bizkaian esaten den “arpelarria” (apisonadora) ezin zela inoren solotik eraman, bidetik baizik. Argi dago XXVII. Tituluaren lehen legeak agintzen duena: ezin zaiola inori kalterik egin.

Legeaniztasuna aipatu dut aurrenik, eta Bizkaiko Foruak baserriaren osotasunak, zatiketarik gabe jarrai dezan, ematen baditu legeak, urrunago doa Baztangoa, etxe eta lur jabego ezberdinak esku baten ez biltzea gomendatzen baitu. Oñatiko Arrazola etxeko eskuizkribuan honako hau irakurtzen da (38):

“Nafarruan, Baztango Partidan iñorc ez dauca lizenziarik, juntaitaco bere Bazter eta Echiari beste Echeric, ez da ere estatubat Lur Partida barruban ez ezcontzaz, eta ez beste edozein Tituloz; eta entzueria daucadanez, Eche Jaunac iñun obeto vizi ez dira an baño: cuidadu bada, nire illoba, zure Familian guertatu ez dedin, Echalde bat bacarra eucanian ondo iragoitia, bi daucanian ez aĩn ondo, eta guztiz gaizqui iru edo lau Echalden Jabe izatera etorten bada, egunoro esperenciac eracusten deuscun leguez.”

Gero ikusiko dugunez, Foru Zuzenbidean aditua zen Arrazolako etxejaun idazlea, Erronkariko ohitura ere azaltzen digu eta (39):

“Nafarruaco Erreinuban dago, Aisquidia, Roncal deritzon Valle bat... Emengo Gentiak daucai Oial Fabrica bat, non ioten dituben bertaco Ganauben uliac Capuchinoen habituaren coloreco Oial batzubez, baina arguiago edo sarjago ioac; eta dauca ifinita Leguia... Guisacumiac... jantzi ditezela bacarric Oial mueta onegaz eta ez bestegaz; eta ain gogorquiro gordetan daube Legue au, zeinda, campotik Valle artara... duazen guztiai gorde eraguiten deutse Legue au gura eta gura ez...”

Ohiturak eta ekanduak gorde beharra dakusku hemen, Erromako esaldi honekin lotuta: *Dum Romae fueris, romano vivito more*, Azkuek erran zahar honekin lotu zuena: *Donostian Donosti, gorostian gorosti* (40).

## V

Arrazolako eskuizkribuaren egilea nor zen ez zekien Jerardo Elortzak 1976an (41) eta geroko ikerketak, egia esan, ez ditut ezagutzen; baina ematen dituen Zuzenbideko datuetatik susma daiteke Oñatiko Unibertsitateko ikaslea izan zitekeela. Sancti Spiritus izeneko Unibertsitate honen historia interesgarria

(38) ELORTZA, Jerardo: “Oinatiko Arrazola etxeko manuskritoak”, *Euskera*, 1977, 194-195.

(39) ELORTZA, Jerardo: Op. cit. 195 or.

(40) AZKUE, R.M.: Op. cit. 1545, 143.

(41) ELORTZA, Jerardo: Op. cit. 183-184 or.

Jose Adriano Lizarralde frantziskotarrak eman zigun 1930ean (42). Euskal Herriko Unibertsitateek Zuzenbideari eman dioten tratamendua argitzeko, euskaltzain berriak aipatu dituen Juan Bautista Agirre Asteasukoa eta Astarloatarren zertzeladak azaltzeko eta iraganaren ildotik gaurko Zuzenbide estudioetara nola heldu garen jakiteko oinarritzakoa dugu Lizarralderen liburua, baita bibliografia ugaria ere, hemen laburtasunaren mesedetan eman ezin duguna.

Nafarroako erresuman XIII. mendetik egindako ahaleginak aparte utziz, ez baitzuten jarraipenik izan (43), Oñatiko Unibertsitatea izan zen Euskal Herriko lehena, 1540n sortua, non Filosofia, Legeria, Kanonak eta Medikuntza ikasketetarako katedrak jarri ziren. Gorabehera asko izan zituen Frantziarekin izandako eta Karlisten gerrateen arabera. Azkenean 1901ean betirako itxita geratu zen. Baina badugu gaur ete hemen azpimarratzeko datua: itxialdi baten ondoren 1874an atea zabaldu zituenean 55 ikasle zituen Zuzenbide Fakultatean, eta 4 Notaritzakoetan. Unibertsitate horretan Notario titulua atera zuen Aurelio Ortiz Ortiz ezagutu nuen Gernikan. Eta abokatu tituludunak ere bai.

Nafarroan, 1565ean sortu zen Lizarrako Unibertsitatearen proiektuak porrot egin ondoren, Iratxen 1597an Sahagunetik etorrira beneditarrek zabaldu zutenak Filosofia, Teologia eta Zuzenbideko katedrak zituen, baina hau ere 1753an itxi zen. Iruñean dominikoeek Santiago izeneko Unibertsitatea eraiki zuten 1630ean, Zuzenbide Zibila eta Kanonikoa irakasten zelarik, baina honek ere 1771an atea itxi zituen (44). Oñatiko Unibertsitatea Institutu mailara jaitsi zuenean Esparterok 1842an, Hegoaldeko lau probintzientzat proiektu interesgarria aurkeztu zen Iruñean 1866an: *Proyecto de Universidad Vasco-Navarra* (45). Zuzenbidea, Medikuntza, Farmazia, Zientziak, Filosofia eta Letretako Fakultateak aurreikusten ziren Araudietan, eta Euskal Herrian lehendabiziko proposamena: euskara eta euskal kultura ikertzea eta estudiatzea. Garatu eta finkatu gabe geratu zen proiektua. Deustuko Unibertsitatea datorkigu gero, 1886an Zuzenbideko lehen ikastaroa ireki zuena, baina gaztelaniaz, tamalez. Zuzenbideari dagokionetik, Universidad de Navarra datorkigu gerra ostean lehena, 1960an eta Donostiako EUTG bigarrena 1963an.

(42) LIZARRALDE, Jose Adriano: *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate*, Tolosa, Isaac Lopez Mendizabal, 1930.

(43) ESTORNES LASA, Jose: *Los Vascos y la Universidad*, Colección Auñamendi, 77 eta 78 tomoak. Zarautz, Itxaropena, 1970. ORELLA UNZUE, Jose Luis: *La Universidad Vasca. Historia. Proyectos actuales para su implantación*, Zarautz, Itxaropena, 1977.

(44) SALVADOR Y CONDE, Jose: *La Universidad de Pamplona*, Madrid, CSIC, 1949. Dominikoeek Iruñean sortutako Unibertsitatearen aurka jarri ziren "La Anunciada" izeneko goi mailako kolejoia zeukatzen jesuitek, hala nola, Jose Moret (1615-1687), Francisco Aleson (1634-1715) eta Pablo Miguel Elizondo (1670-1728).

(45) *Proyecto de una Universidad Vasco-Navarra, propuesto por la Diputación de Navarra a las de Vizcaya, Alava y Guipuzcoa y contestación de las mismas*, Pamplona, Imprenta Provincial, 1866, 20 or. 22 × 14,5 cm.

Valladolideko Unibertsitatearen menpean sortu zen 1968an Bilboko Unibertsitate Autonomoa, Bizkaiko barrutian mugatua, eta urte berean Donostiako Zuzenbide Fakultatea, hau ere zuzenean Valladolidekoari lotua eta orduan Bilborekin zerikusirik ez zeukana. Hurrengo urtean, 1969.eko urriaren 6an, hasiera eman zitzaion San Telmon lehen Zuzenbide ikasturteari. Eta bederatzirte geroago, 1977.eko irailaren 23an onartu zen Madrilen Euskal Unibertsitatearen Barrutia sortzea eta orduan bat egin zuen Donostiako Zuzenbide Fakultateak Euskal Herriko Unibertsitatearekin (46). Euskaltzaindiri dagokionetik ezin dugu ahaztu 1977an eskatu zuela Euskal Unibertsitatearen Barrutia sortzea.

Unibertsitateko mailan eta gaietan euskara erabiltzeaz ezinbestekoa da Udako Euskal Unibertsitatea aipatzea. 1973.eko abuztuaren 29an, Donibane Lohizuneko Maurice Ravel Lizeoan, eman zitzaion hasiera, Euskaltzaindiak osoen bilkura bertan egin zuelarik. Hurrengo urtean ere bertan antolatu zen bigarren ikastaroa. 1975 eta 1976 urteetan Ustaritzeko Landagoien jarraitu zuen, 1977an Iruñeko Larraona Ikastetxera etorri arte, non jarraitzen duen ordutik hona.

Oñatiko Unibertsitateak izan zuen ikaslerik ospetsuena Esteban de Garibai arrasatearre izan zen. Baina badauka zerikusirik guk hemen darabilgun gaiaz beste euskal idazle batzuekin ere. Horietariko bat izan zen Asteasuko Juan Bautista Agirre Elola (1742-1823) zeinen anaia Jose Antonio (1747-1814) unibertsitateko errektore izan zen 1773an eta Zuzenbide Fakultateko katedraduna. Izan zuen ba Juan Bautista apaizak hurbileko aholkularia lege arazoetan. Asteasuko Notarioen lankide izan omen zen gure idazlea eta inoiz (1812) notarioa gaisorik zegoela eta testamenturen bat ere burutu omen zuen. Hala diosku Pello Jose Aranburuk Urrutia jaunak aipatu digun liburuan. Anaia hil eta haren liburutegi juridikoaz Juan Bautista jabetu zela dirudi; Zuzenbideko 30 liburu zeuzkan hil ondoren Zarauzko frantziskotarren komentura eraman zituztenak liburutegi osoaren barruan.

Juan Bautistaren amaren familiako Feliziana eta Josefa Elola Limara joanak ziren eta Inazio Elola osaba geroxeago, zeinek berarekin eraman zuen 1752an Juan Millan, idazlearen anaia. Dirutza jaso zuten Agirretarrek Perutik, beste askok bezala Ameriketatik. Honetaz badago frogantza dokumentala eta Azkuek bildu zuen esaldia ere: "Asteasuko kanpaiak galde egin zuan: Dirua nun? Alkizakoak erantzun zion: Leten eta Perun" (47).

Juan Mari Lekuonak, osabaren artxiboan aurkituta, ekarri zigun Azkue Bibliotekara Juan Bautista Agirreraren eskuizkribu originala: *Gure becatuac quen-*

---

(46) BARRIOLA IRIGOIEN, Ignacio Maria: *Gestiones guipuzcoanas para una Universidad oficial en el País Vasco. 1963-1979*, Bilbao, Universidad del País Vasco, 1985, 310 or. Eskertzen diot Pello Salaburu, euskaltzain eta EHU-ko errektoreari, nire hizaldia amaitu ondoren gai honetaz bertan gaizki eman nuen datu bat zuzentzeko egin zidan oharra.

(47) AZKUE, R.M.: Op. cit. 1512, 140.

*tzen dituan Jaunaren bildots Jesus maitagarria Pazcoetan ongui artzeco eracusaldiac. Lenengo Zati edo Partea.* Eskuizkribu honetan irakurtzen da: "...escu edo derecha irabazteco..." "...ceruraco escu ta derecha..." Baina "...escu bide..." ere iduzten dugu. Eta ene ustez hitz egokia den bat: "jabegai" gaztelaniazko "heredero" esateko, hirurogei urte edo lehenago dokumentatua. Eta harrigarria da nola "h"rekin idazten dituen erakusleak, eta bestelako hitz batzuk: *hiru, hitz, hipui, hil*, esate baterako beste liburu batzuetan idatzita agertzen diren bezala. Eskuizkribu hau haurrentzat idatzi zuen Agirrek eta zati batzuk beste liburu batzuetan argitara eman bazituen ere, badaude argitara gabeko pasarteak. Beraz, lan osoa argitaratzea komeni dela uste dut, Asteasuko Agirrerren "opera omnia" osotzeko. Eta bidebatez esan behar dut idazle honen bibliografia osoa ez dela inon agertzen, badituelako bi liburu, gutxienez, kale-ratuak eta inon aipatuak ikusten ez ditudanak. Honetaz ikerlana paratzekotan nabil, Euskaltzaindiaren agerkari honetan laster emateko asmoetan.

Durangoko Astarloatarrek ere bazuten Zuzenbiderako sena. Pedro Joseph Patricio (1751-1821) eta Pablo Pedro Astarloa Agirre (1752-1806) anaiak bazuten nondik xurgatu legeriaren jakituria. Aita, Juan Bautista, abokatua zen eta honen anaia, osaba Alejo, Oñatiko Unibertsitatean errektore izan zen lau aldiz 1739 eta 1749 urteen bitartean. Familiak orduko lege-gizonekin harreman onak zituen. Pablo Pedoren aitabitxi, esate baterako, Gernikako Joaquin Murua eskribaua izan zen.

## VI

Aita Villasantek 1973an aurkeztu zuen txostena, hots, "Lege gizonek behar duten hiztegi berezia" aipatu du euskaltzain berriak. Gerra aurrekoak aparte utzita, lau urte lehenago hasi zen Euskaltzaindia arazoa akuilatzen. Donostiako Zuzenbide Fakultatea 1968an sortu zela esan dut. 1969.eko martxoaren 28an Euskaltzaindiak Donostian egin zuen osoen bilkuran, Barriola jaunak adierazi zuen "urrillerako, Unibersidade berriko Lege-Fakultadearen zuzendariari eskatu zaiola lehen ikastaroetan euskerazko asignatura jartzea". Agiri berean, Barriolarekin lan egiteko batzordeño bat izendatzen da: Arrue, Lojendio eta Santamaria jaunak. Maiatzeko bileran "Lege ikasgoa" izena proposatzen da Fakultate berri-rako. Iraila, urria eta azaroko bileretan berriz jartzen da mahaian gaia, baina Xabier Mendigurenek 1976an "Hiztegia" txostenean salatu zue-nez (48) "nori berea emanez ibiltzea eskatzen duen zuzenbidetik nekez ibili ohi gara". Egiaren mesedetan esan behar dut Urrutia jaunak eman dizkigula Aita Villasantek zerrendatutako aditu batzuen izenak, baina berak emandakoen artean ez daude denak. 1972. eko maiatzaren 26an bi batzordeño izendatu ziren:

(48) MENDIGUREN, Xabier: "Hiztegia", *Euskera*, 1977, 98 or.

Eragile atalerako: Mitxelena, buru, Arrue, Haritschelhar eta Lizundia, idazkari.

Kontseilari edo lankide atalerako: Lojendio, Oleaga, Santamaria, Caro Bajora, Itzaina, Monreal, Muniategi eta Zabaleta.

Ez dut beste albisterik aurkitzen agiritan. Joseba Intxaustiri zor diogu zer-bait baino gehiago, Hiztegi espezializatuak egiteko UZEI sortu baitzuen 1977an. Mitxelenaren haserrea denok daukagu gogoan. Urte berean, 1977.eko azaroaren 25ean, "Euskal Zuzenbide hitzei buruz" txostena irakurri zuen Patxi Zabaletak Donostian. Baina Euskaltzaindiak, egia esan, ez zuen aurrerapauso handirik eman geroztik.

Hemen datorkigu orain ez aulkian jesartzera lan egitera baizik Andres Urrutia Badiola euskaltzain berria. Arloa jorratua du eta landare loratsuak emango dizkigulakoan nago. Zorionak, Andres, eta asmoz eta jakitez (49) ekin eta jarrai.

## BIBLIOGRAFIA

### A) Liburuak (Zuzenbidearen arloan)

- UZEI: *Administrazioa Zirkulazioa Hiztegia*, Donostia 1983, Elkar. Kolaboratzailea.
- UZEI: *Zuzenbidea Hiztegia*, 2 lib., Donostia 1984, Elkar. Kontseilaria eta zenbait artikuluren egilea.
- *Euskara legebidean*, Bilbo 1990, Deustuko Unibertsitatea, 266 or.
- *Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideak: gida liburua*, Donostia, 1990, Euskal Kulturaren Batzarrea. Egilekidea.

---

(49) Eusko Ikaskuntzaren lema hau Juan Carlos Guerra euskaltzainak aurkitu zuen, Heraldikako estudioetan dioenez, Aulestiko Bengoetxea jauregian, baina ez armarran Javier Ybarra y Bergék (*Escudos de Vizcaya*) ematen baitigu horren argazkia eta ez da han azaltzen. H. Knörr euskaltzainak esan zuenez (M. Azkarateri idatzitako gutunean, 1997-02-15) Odon Apraizek gomendatu zion Angel anaiari, Eusko Ikaskuntzako idazkaria zenari, proposa zezala erakundearen ikurritzat, eta hala onartu zen 1919.eko ekainaren 27ko bileran. J.C. Guerrak emandako testua hau zen: *Bengoak goikoa eskondu leidi / Ta txikiak andia benzi leidi / Asmuz eta jakitez*. Baina hara non Salamancan agertu den beste testu bat, Knörr jaunak Azkarate andereari aipatu gutunean ematen diona: *Bengoak goikoa eskondu leidi / Ereti danian, nai ekitez / Ta txikiak andia benzi leidi / Asmoz ta ikitez*. Bigarren hau, bere osotasunean, egokiagoa dela dirudi eta *Bengoak* lotura gehiago dauka Bengoetxea jauregiaren izenarekin. Lemari dagokionetik, antzerakoak dira bietan agertzen diren azken lerroak, eta Eusko Ikaskuntzak ondo aukeratu zuela dirudi. Baina Bengoetxea jauregi hori ez dago Aulestin, Gizaburuagan baizik. XVIII. mendeko fogerazioetan Aulestiko Gizaburuaga auzoan agertzen da jauregia. Geroztik Gizaburuaga udala da, eta egun zutik egon ez arren, hemen zegoen kokatuta jauregia. Beraz, orain esan beharko genuke *Asmoz eta jakitez* Gizaburuagako Bengoetxea jauregiko ondare dokumentalari dagokiola eta ez Aulestikoari. Bestalde, Euskaltzaindiaren *Ekin eta Jarrai* lema 1920.eko urtarilaren 7an onartua izan zen.

- UZEI: *Hirigintza Hiztegia*. Donostia 1994, Elkar. Kolaboratzailea.
- *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Bilbo, 1995, Deustuko Unibertsitatea. Egilekidea A. Loberarekin, 488 or. Liburu horren bigarren argitaraldia: Bilbo, 1997, Deustuko Unibertsitatea, 2. arg., 488 or.
- *Practicum. Derecho Civil Foral del País Vasco*, Bilbo, 1995, Deustuko Unibertsitatea, 463 or. Egilekidea A. Atxabal, L. Goikoetxea eta E. Pérezekin.
- A. Loberarekin batera Zuzenbide zibila eta Administrazio zuzenbideko eskuliburuen itzulpenaren koordinatzaile eta zuzentzailea. Argitaratu dira:

#### A.a) *Administrazio zuzenbidearen eskuliburuak*

- Administrazio zuzenbidea I. Zati orokorra (Derecho administrativo I. Parte general)*. Ramón Parada Vázquez. Deustuko Unibertsitatea. 1996. 755 or.
- Administrazio zuzenbidea II. Antolaketa eta enplegu publikoa (Derecho administrativo II. Organización y empleo público)*. Ramón Parada Vázquez. Deustuko Unibertsitatea. 1997. 568 or.
- Administrazio zuzenbidea III. Ondasun publikoak. Hirigintza zuzenbidea (Derecho administrativo III. Bienes públicos y Derecho urbanístico)*. Ramón Parada Vázquez. Deustuko Unibertsitatea. 1997. 584 or.

#### A.b) *Zuzenbide zibileko eskuliburuak*

- Zuzenbide zibila. Zati orokorra (Derecho civil. Parte general)*. A. López, V. L. Montés (koord.). Deustuko Unibertsitatea. 1996. 704 or.
- Betebeharrei eta kontratuei buruzko zuzenbidea (Derecho de obligaciones y contratos)*. M.<sup>a</sup> R. Valpuesta Fernández (koord.). Deustuko Unibertsitatea. 1996. 893 or.
- Eskubide errealei eta ondasun higiezinaren erregistroari buruzko zuzenbidea (Derechos reales y derecho inmobiliario registral)*. A. M. López y López, V. L. Montés Penadés (koord.). Deustuko Unibertsitatea. 1997. 1021 or.
- Famili zuzenbidea (Derecho de familia)*. V.L. Montés, E. Roca (koord.). Deustuko Unibertsitatea. 1997. 708 or.
- Oinordetza zuzenbidea (Derecho de sucesiones)*. F. Capilla, A. M. López, E. Roca, M.<sup>a</sup> R. Valpuesta, V. L. Montés (koord.). Deustuko Unibertsitatea. 1997. 766 or.

#### B) **Artikuluak (Zuzenbidearen arloan)**

Zenbait aldizkaritan ohiko kolaboratzailea. Aldizkari horietan agerturiko arlo juridikoaren artikuluak, jarraikoak:

a) *Karmel* aldizkarian:

“Euskara, segurtasun juridikoen hizkuntza ote?”, *Karmel* 195 (1991) 1, 6-10.

“Euskararen «Barne-normalkuntza»z zertxobait”, *Karmel* 198 (1991) 4, 75-80.

“Bizkaiko Forua, baserritarra ez ote?”, *Karmel* 204 (1993) 2, 54-60.

“Baserriaren inguruan: oinordetzazko itunak eta Bizkaiko Foru Zuzenbidea”, *Karmel* 208 (1994) 2, 20-30.

“Gerra aurreko euskal terminologia juridikoa: J.B. Eguzkitzaren «Gizarte auzia» (1935)”. *Karmel* 220 (1997) 4, 50-84.

b) *Euskera* aldizkarian:

“Euskeraren erabilera zuzena: ikuspegi juridikoak”. *Euskera* 39, 1 (1994), 99-119.

“Euskal Hiztegi Juridikoa”. *Euskera* 39, 3 (1994), 1279-1298. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. Leioa, 1994.10.03-07.

c) *Jakin* aldizkarian:

“Hizkuntz ofizialkidetasuna”. *Jakin* 65 (1991), 39-60.

“Euskararen eta katalanaren legeak. Hamarkada luze baten ondoren”. *Jakin* 82 (1994), 37-49.

## d) Bestelakoak:

“Bizkaiko eta Arabako Konpilazioen 30. urtean: bere euskaralpenerako lehen hurbilketa”. *Revista del Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya* 49, julio-septiembre (1990), 31-102.

“La lengua vasca y el proyecto de «Fuero Civil» de Bizkaia y Araba”. *Estudios de Deusto* 39.1 (1991), 277-297.

“Ondarroa eta Legedi Bikoiztasuna”. *Estudios de Deusto* 42.2 (1994), 213-246. Egi-lekidea.

“Euskara, planifikazioa eta Zuzenbidea”. *Administrazioa euskaraz* 4, (1986), 1.

“Euskara eta erregistro publikoak”. *Administrazioa euskaraz* 5, (1986/1987), 2-3.

“Derecho, planificación lingüística y euskara”. *Herri Agintaritzaren Euskal Aldizkaria/Revista Vasca de Administración Pública*, 17 (1987), 119-123.

“Euskara eta dokumentu notarialak”, *Euskara Biltzarra, II. Euskal Mundu Biltzarra, II. alea: Hizkuntza eta gizartea*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 1988, 27-32 or.

“Administrazioko euskararen hizkera-mailak eta terminologi arazoak”. *Administrazio hizkera eta terminologiaren Jardunaldiak*. 17-24 or. Oñati 1989, HAEE/IVAP.

“Euskararen erabilera herritarren arteko harreman juridikoetan”, *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*, HAEE/IVAP, Oñati, 1990, 235-251 or.

“Notas para una exposición del Capítulo V «Disposiciones comunes a las distintas formas de suceder» del Proyecto de Fuero Civil de Bizkaia y Araba”, «Libertad civil



y Derecho sucesorio»ri buruzko mahainguruan partehartzeara, *Jornadas Internacionales sobre Instituciones Civiles Vascas, 20-22 de noviembre 1991*, Bilbo, 1991, Deustuko Unibertsitatea, 158-165 or.

“Ambito territorial y personal de aplicación del Fuero Civil de Bizkaia. La troncalidad y sus efectos en las enajenaciones «inter vivos» de los bienes troncales: la «saca foral»”, *El Derecho Foral Vasco tras la reforma de 1992-Jornadas (Bilbo, 1993)*, Pamplona, 1994, Aranzadi, 33-64 or.

“Oihenart: Euskal Errefraua eta Foru Zuzenbidea”. *Oihenarten laugarren mendeurrena*. Iker-8, 329-349 or. Bilbo 1994, Euskaltzaindia.

“La sucesión intestada y la declaración de herederos abintestato en el Derecho Foral Vasco”. *Derecho Civil Foral Vasco*. Bilbo 1995, Eusko Jaurlaritza, Consejo General del Poder Judicial, 307-340 or.

“Reservas y reversiones en el Derecho Foral Vasco”. *Derecho Civil Foral Vasco*. Bilbo 1995, Eusko Jaurlaritza, Consejo General del Poder Judicial, 341-352 or.

“Propuestas de simplificación del lenguaje jurídico. Breve reflexión desde el euskara”. *Administrazioaren eta Herritarren arteko Komunikazioa hobetu nahian (Hizkera errazteari buruzko Jardunaldiak)*, Donostia, 1995, IVAP/HAEE, 143-147 or.

### C) Euskal literatura

Jurista lanaz aparte, euskal literaturan ere jardun du:

— *Idatz & Mintz* aldizkariaren (Labayru Institutua) Idazketa Kontseiluko kidea.

— *Euskal Idazleen Elkarteko* kidea.

— Itzulpen lanak:

#### 1. Galizieratik:

NEIRA VILAS, X.: *Mutiko baserritar baten oroitzenak*, Galburua bilduma, Labayru Ikastegia, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1988, 116 or.

*Hegats (Euskal Idazleen Elkartearen aldizkaria)* aldizkarian argitaratuak 1. eta 6. zenbakietan, hurrenez hurren:

MENDEZ FERRIN, X.: “Percival”, *Hegats*, 1 (1989), 65-70 or.

MENDEZ FERRIN, X.: “Marisorgina”, *Hegats*, 5 (1991), 79-82 or.

*Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratuak:

CUNQUEIRO, A.: “Hareazko erlojua”, *Idatz & Mintz*, 10/11 (1985), 38-40 or.

NEIRA VILAS, X.: “Ni naz...”, *Idatz & Mintz*, 12 (1986), 23. or.

#### 2. Ingelesetik:

*Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratuak:

JOYCE, J.: "Ostatua", *Idatz & Mintz*, 7 (1984), 27-29 or.

TOLKIEN, J.R.R.: "Ainulindale Ainur-en musica", *Idatz & Mintz*, 8 (1984), 29-34 or.

### 3. Gaztelaniatik:

"Eusebio Abasolo". *Karmel* 219 (1997) 3, 138-144.

— Zenbait idazlanen egilea (*Itaka, Izaro galdua, Pentateon, Denporaren paradoxa eta Giuseppina, Giuseppina*). Lan horietatik batzuk *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratu eta liburu batean bildu ditu:

*Orrialdeak*, Galburua bilduma, Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo, 1992, 106 or.

## D) Euskal kultura

### a) *Karmel* aldizkarian:

"Peru Abarka-ren 6. autua", *Karmel* 176 (1986) 1, 20-25.

"UZEI-ren Hiztegi berria: Zuzenbidea (Martxoak hogeian Deustuko Unibertsitatean irakurritako aurkezpena)", *Karmel* 177 (1986) 2, 94-97.

"Larramendi-ren berrehun urteetan (1960-1766)", *Karmel* 178 (1986) 3, 45-50.

"Unamuno'ren «Paz en la guerra»", *Karmel* 180 (1987) 1, 83-88.

"Euskal Biltzarra: hizkuntza eta gizartea", *Karmel* 183 (1987) 4, 21-26.

"Euskal literaturaren inguruan: mende hasierako «literaturas mortas»", *Karmel* 188 (1989) 1, 6-13.

"J.B. Eguzkitza eta Lekeitio, berrogeitamar urte geroxeago (1939-1989)", *Karmel* 191 (1989) 4, 5-17.

"Ondarroa; astebete bat Augustin Zubikarairen inguruan", *Karmel* 202 (1992) 4, 84-90.

"Arranegitik Arranondora, Eusebio Erkiaga (1912-1993) gomuta nahian", *Karmel* 206 (1993) 4, 11-29.

*Eskribau Zaharra*: "Irratiko protokolo baten printzak (I)", *Karmel* 207 (1994) 1, 97-107.

*Eskribau Zaharra*: "Irratiko protokolo baten printzak (II)", *Karmel* 209 (1994) 3, 92-100.

*Eskribau Zaharra*: "Eskuizkribu baten sotadantza", *Karmel* 212 (1995) 3, 67-79.

*Eskribau Zaharra*: "Escribadu gazteentzako Eusquerazco Instruziñoiac, Mogelen Erara Moldatuac", *Karmel* 214 (1996) 1, 86-91.

"E. Erkiaga, medikuntza arloko itzultzaile: *zain tiratu, zain urratu, zaina bere lekuan sartu* (I)". *Karmel* 218 (1997) 2, 3-41.

b) *Jakin* aldizkarian:

Euskal kultura 1992: "Euskaltzaindiaren egoitza berria", "Frantsesa errepublikaren mintzaira", "Publizitatea eta hizkuntza ez normalizatuen kongresua", *Jakin* 73 (1992), 60-63.

Euskal kultura 1994: "Lehen eracusaldia", "Bigarren eracusaldia", "Hirugarren eracusaldia", "Laugarren eracusaldia", "Bosgarren eracusaldia", "Seigarren eracusaldia", *Jakin* 85 (1994), 52-55.

Euskal kultura 1996: "Linguae vasconum ultimissimae", *Jakin* 97 (1997), 47-54.

c) *Ondarroa* aldizkarian:

"Ondarroa eta Bizkaiko Forua", *Ondarroa* (1983), 23-24.

"Ondarroako sorlegeaz", *Ondarroa* (1984), 10.

"Ondarroa baserri giroan", *Ondarroa* (1985), 47-48.

"Berriatua", *Ondarroa* (1986), 33-34.

"Ondarroako paper zaharren artean", *Ondarroa* (1987), 13-15.

"Ondarroa hogeitamarreko urteetan", *Ondarroa* (1988), 63-68.

"Ondarrutar jatorrizko bat lur santuan: J. Izurrategi", *Ondarroa* (1991), 42-44.

"Ontzia, kaia, itxas argia", *Ondarroa* (1992), 2-3.

"Ezkontzaren inguruan", *Ondarroa* (1993), 1-2.

"Ondarroa gudaldian: EGUNA euskal egunkariaren ikuspegia (1936)", *Ondarroa* (1994), 43-47.

"Ondarroako euskal idazleak: ikuspegi orokorra", *Ondarroa* (1996), 66-70.

d) *Arranondo* aldizkarian:

*Andu Koaxi*: "Euskera Ondarroan: ekimen baten adierazpena", *Arranondo* 7 (1990), 3.

*Andu Koaxi*: "Etxejaubeen komunitateak", *Arranondo* 13 (1991), 5.

*Andu Koaxi*: "Bizkaiko Foru Barria eta Ondarroa", *Arranondo* 33 (1993), 8.

*Andu Koaxi*: "Ondarroa. Kondaira 1900 arte", *Arranondo* 45 (1994), 12.

*Andu Koaxi*: "Ondarroako Erakustokia, egingarria ete?", *Arranondo* 47 (1994), 4.

Andrés Urrutia: "Ondarroa eta ondarrutarroi, adiorik ez", *Arranondo* 50 (1994), 5.

*Ondarbiko*: "Datu batzuk, gogoeta zenbaitzuk", *Arranondo* 60 (1995), 4.

*Andu Koaxi*: "Ondarroako sorlegearen sustraia: Logroñoko Fueroak, 900 urte", *Arranondo* 60 (1995), 7.

*Ondarbiko*: "«Kamiñazpi» ondarrutarraren «Ondarroa'ko kontuak», *Arranondo* 62 (1995), 5.

*Andu Koaxi*: "Ondarroako merkataritza onomastika", *Arranondo* 66 (1995), 12.

*Andu Koaxi*: "Ondarroa eta Foru Zuzenbidea, beste behin be: alderdi forudun eta forubakoaren irudia", *Arranondo* 68 (1995), 11.

*Andu Koaxi*: "(XV-XVI gizaldiak) korregidorearen bisitak eta Ondarroako udal araubidea (I)", *Arranondo* 71 (1996), 4.

*Andu Koaxi*: "(XV-XVI gizaldiak) korregidorearen bisitak eta Ondarroako udal araubidea (II)", *Arranondo* 72 (1996), 12.

*Andu Koaxi*: "Nuevo Antxustegi ontzi ondarrutarra Bilbon", *Arranondo* 92 (1997), 13.

e) Bestelakoak:

"Augustin Zubikarai, Ondarroako euskalgintzaren lekuko eta zuzperlea". *Augustin Zubikarai. Omenaldia 1992*. Ondarroako Udala. Ondarroa 1992.

"Gomutetan dot. Oroit naiz (Dakigunetik ez dakigunera)", 139-141 orr. *Derioko Udako Euskal Ikastaroa 25. urtean (1970-1994)*. Labayru Ikastegia. Bilbao, 1996.

EGUSKITZA, Juan Bautista: *Gizarte-auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak*, Donostia, 1991, EEE-Erein. Eusko Jaurlaritzaren *Euskal Klasikoak* bildumaren barruan kokatzen da. Liburu horren edizioa prestatu eta horretarako sarrera idatzi du.

"Etxepare, el poeta de una lengua sin Estado", *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Gasteiz, 1996, Fundación Sancho el Sabio, 85-112 or.

"Olerkaria lege autuetan: Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* ikusmira juridikopean", *Enseiukarrear*, 12 (1996), 36-51.

"Euskara eta biarnesa XVI. mendean: albetarren aldeko gomendiozko kartak", *Federiko Krutwig-i omenaldia*. Iker-10, 339-359 or. Bilbo 1997, Euskaltzaindia.